



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko otsailaren 6a

6. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (5. or.).
- Foru Lege proiektua, kontratu publikoei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Nafarroako Gobernuak sexu heziketaren eta haurdunaldia nahita etetearen arloan daraman politikari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (6. or.).
- Jabeldura, egitekoa den mendekotasunari buruzko legearen garapenari buruzkoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak egina (7. or.).
- Jabeldura, ureztalurraren arloan Nafarroako Gobernuak darabilen politikari buruzkoa, Aralar parlamentu-taldeak egina (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa txiki eta ertainen behatokia sor eta arau dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak lehendakaria premiatzen da euren karguetatik ken ditzan Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilari Palacios Zuasti jauna eta Informazioaren Gizarterako zuzendari nagusi Ángel Sanz Barea jauna, Iruñean bi irradi lizentzia adjudikatzean izan zuten jokabidearengatik. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan Uztartu Plana izenaz ezagutzen dena foru arauetara aldatzeko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoko bidaiarien garraioa hobe dezan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Altsasu eta Gasteiz lotzen dituen aldiriko trenaren zerbitzua mantentzeko. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kamioiei ez diezaien N-121-A errepidea erabiltzen utzi, harik eta obrak bukatu arte. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua premiatzen da ikas-bonoa abian jar dezan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa protokolo bat taxutu dezan, zeinaren bitartez Nafarroako administrazio publikoek genero indarkeria arbuatuko duten. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat izenpetu dezan Berriozarko Udalarekin, emakumeari laguntzeko Laira zentroa finantzatzeko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan administrazio publikoek bidezko merkataritzan eta kontsumo arduratsuan parte har dezaten. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan Interneteko domeinu bereki eta berariazkoa kudeatzeko. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, aukeren berdintasunaren arloko maila ertaineko teknikari lanpostu bat betetzeko deialdiaren legezotasunari buruzkoa, foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak egina (18. or.).
- Galdera, FMko lizentziak baliogabetu dituen Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaiari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Liburutegi Nagusirako eta liburutegien sarerako liburuak nahiz ikus-entzunezkoak erosteari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (19. or.).
- Galdera, Berriozarko trenbide-pasagunea kentzeari buruzkoa, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak jaunak egina (20. or.).
- Galdera, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren gehieneko tasa jaisteari buruzkoa, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Toki Administrazio Departamentuak Zuñigako Udalaren erabakien legezotasuna kontrolatzeari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izo Biarge jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Nafarroaren esportazioak murrizteari buruzkoa, foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak egina (23. or.).
- Galdera, Olaztin errausteko industria-jarduera abian jartzeko aukerari buruzkoa, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (23. or.).
- Galdera, haurdunaldia nahita eteteari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (24. or.).
- Galdera, N-121-A errepideko Etxalarko bidegurutzean segurtasuna areagotzeko ekimenei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (25. or.).
- Galdera, Uharteko Euskal Jai Berri frontoian eta beste kirol eremu batzuetan Tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezarri eta tabakoaren produktuen salmenta, kontsumoa eta publizitatea arautzeko Legea urratzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (26. or.).
- Galdera, ostalaritza establezimenduetan Tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezarri eta tabakoaren produktuen salmenta, kontsumoa eta publizitatea arautzeko Legea urratzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (27. or.).
- Galdera, Itzea etxea, Caro Baroja sendiaren jabetzakoa baita, museo bihurtzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Buñuelgo Udalak zenbait lurzati borondatez birzatatzeari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izo Biarge jaunak egina (28. or.).
- Galdera, erradioterapiako tratamendua hartzeko Klinika Unibertsitariora bideratutako gaixoei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (29. or.).
- Galdera, hiru azeleragailu linealen erosketari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (30. or.).

- Galdera, Baluartearen sarrera nagusia ele bitan errotulatzeari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (31. or.).
- Galdera, Baluarteko plazako galtzadarrria aldatzeari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (32. or.).
- Galdera, Aralarko erretaula Baluartera eramateari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (32. or.).
- Galdera, Bularreko Minbiziaren Antzemate Goiztiarreko Programari buruzkoa, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egina (33. or.).
- Galdera, osasun etxeetan bertan egoteko guardiei buruzkoa, foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu andreak egina (34. or.).
- Galdera, “En Navidad ¿quién?” izeneko kanpainari buruzkoa, foru parlamentari Aurelia Lumbreras Íñigo andreak egina (34. or.).
- Galdera, NA-134 errepidean zehar, Ebro ibaiaren ardatzean zehar, saihezbideak egiteari buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (35. or.).
- Galdera, Iruña-Logroño autobia eta estatuko errepideen sarea lotzeari buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (36. or.).
- Galdera, Estatuko trenbideen sarearekin lankidetzan aritzeari buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (36. or.).
- Galdera, “Nafarroako Gobernu” izena daramaten identifikazio plakak paratzeari buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (37. or.).
- Galdera, Departamentuetan I+G+Ba enpresa sarean sustatzeari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (37. or.).
- Galdera, D eremuan curriculum-aniztasuna eskaintzeari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (38. or.).
- Galdera, San Fermin ikastolara aldatzeagatik arartekoak eginiko gomendioei buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (38. or.).
- Galdera, Caja Navarra fundazioarekin lankidetzat hitzarmen bat onesteko Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiaren ahalmenari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (39. or.).
- Galdera, Ezkaba ikastetxe publiko berria eraikitzeko obrei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (39. or.).
- Galdera, Agoizko ikastetxe publikoan gela berriak eraikitzeko obrei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (40. or.).
- Galdera, Lizarran haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko berri bat edo institutu bat eraikitzeko obrei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (41. or.).
- Galdera, Larragako ikastetxe publiko handitzeko obrei eta gimnasio bat eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (41. or.).
- Galdera, Otsagabiko DBHia handitzeko obrei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (42. or.).
- Galdera, Patxi Larraintzar eta Ave María ikastetxe publikoak handitzeko obrei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (43. or.).
- Galdera, Oteitzako ikastetxe publiko handitzeko obrei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (43. or.).
- Galdera, Donibane BHIan zurgintzako nabe bat eraikitzeko obrei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (44. or.).
- Galdera, Tuterako Valle del Ebro BHIa handitzeko obrei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (45. or.).
- Galdera, Zizur Nagusian ikastetxe publiko berria eraikitzeko obrei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (45. or.).
- Galdera, kirol proba bat egiten ari zen bitartean Larragan lasterkari bat hil izanari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (46. or.).
- Galdera, Larragan lasterkari bat hil izanarekin lotutako zenbait jarduketari buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (47. or.).

- Galdera, Gares aldeko uretan farmakoak agertu izanari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (48. or.).
- Galdera, Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena ospatzeko gastuei buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (49. or.).
- Galdera, Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena ospatzeko Espainiako Gobernuari eskatutako laguntzari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (49. or.).
- Galdera, Elgorriagako bainuetxeko obrei buruzkoa, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egina (50. or.).
- Galdera, Arginaritzen itxitako zaborteziaren egoerari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (51. or.).
- Galdera, Azagrako saihebidia eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (52. or.).
- Galdera, Berriozarko Mendialdea ikastetxean izandako gertakariei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (52. or.).
- Galdera, Foru Komunitateko gizon eta emakumeek deklaraturako urteko batez besteko soldatari buruzkoa, foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egina (53. or.).
- Galdera, soldatara langileak dituzten autonomoen ehunekoari buruzkoa, foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak egina (53. or.).
- Galdera, 2003, 2004 eta 2005ean erregistraturako patentei buruzkoa, foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak egina (54. or.).
- Galdera, “La Edad de un Reyno, Sancho El Mayor y su linaje” izeneko erakustekari buruzkoa, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (54. or.).
- Galdera, 2006an zehar foru lege proiektuak igortzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (55. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 2/2005 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 26koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (57. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2006ko otsailaren 14ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2005eko abenduaren 19ko 131.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Lege proiektua, kontratu publikoei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Kontratu publikoei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2006ko otsailaren 15eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2005eko abenduaren

20ko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Gobernuak sexu heziketaren eta haurdunaldia nahita etetearen arloan daraman politikari buruzkoa.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuak sexu heziketaren eta haurdunaldia nahita etetearen arloan daraman politikari buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduren 179. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, sexu heziketaren eta haurdunaldia nahita etetearen arloan daraman politikari buruzko jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran tramita dadin.

Osasun Ministerioak jakitera eman ditu haurdunaldiak eteteari buruzko datu ofizialak.

2004an, Nafarroan 639 etete izan ziren guztira; alegia, 2003an baino % 6,3 gehiago. Datu horiek

kezkarriak dira, agerian uzten dutelako egoera horiei aurrea hartzeko sexu heziketa gehiago eta hobe behar dela, eta, orobat, Nafarroako emakumeek eskubide horretaz baliatzeko foru erkidegoan dauzkaten zailtasunengatik.

Nafarroa oraindik ere Espainiako autonomia erkidego bakarra da non 9/1985 Lege Organikoak ezarritako kasuetan emakumeek haurdunaldia nahita eteteko aukerarik ez duten.

Egoera horren aurrean, sozialisten parlamentu-taldeak ezagutu nahi ditu Nafarroako Gobernuak sexu heziketaren arlorako egin dituen aurreikuspenak, hain zuzen ere nahi gabeko haurdunaldiei aurrea hartu eta haiek gutxitzeko, eta, era berean, zein aurreikuspen dauzkan gobernuak emakume nafarren egoera bidegabe eta baztertzaile horrekin bukatzeko, ez baitute modurik legez babestuta dagoen eskubide batez baliatzeko.

Hori guztia dela eta, sozialisten parlamentu-taldeak ezinbestekotzat jo du sexu-heziketari eta haurdunaldia nahita eteteko eskubidea aplikatzeari buruzko jabeldura haur aurkeztea Nafarroako Gobernuko lehendakariari.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 9an

Eleduna: Fernando M.^a Puras Gil

Jabeldura, egitekoa den mendekotasunari buruzko legearen garapenari buruzkoa.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak egitekoa den mendekotasunari buruzko legearen garapenari buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Jabelduraren azalpena

Joan den urteko otsailean, parlamentu-talde honek eskari bat aurkeztu zuen Legebiltzarrean lan batzorde berezi bat sor zedin eskatuz, hain zuzen ere mendekotasuna dutenei laguntza emateko eredia diseinatu eta abian jartzeko. Parla-

mentuko Mahaian eta Eledunen Batzordean ezezkoa eman zitzaion proposamen horri.

Urtebete geroago, 2006ko urtarrilaren 10ean, Lan eta Gizarte Gaien ministroak eta Estatuko idazkari Valcarce andreak Pertsonen autonomiari buruzko Legearen aurreproiektua aurkeztu zioten Palacios jaunari. Aurkezpen horretan, Caldera ministroak kontseilariari jakinarazi zion nahiko lukeela foru erkidegoa bat etortzea Mendekotasunen Legeari buruz lortu den adostasunean.

Nafarroan, 15.000 inguru izan daitezke arau horretatik onura aterako duten pertsonak, eta pertsona horiei arreta emateko foru erkidegoak ordaindu beharreko kostua, lehenbiziko kalkuluen arabera, urteko 50 milioi euro ingurukoa izanen da.

Datu horiek ezagututa, jakin nahi genuke zein den foru erkidegoko gobernuaren iritzia lege proiektu horri buruz. Hori dela eta, jabeldura hau aurkeztu diogu gobernuari, finka dezan zer jarrera izanen duen etorkizuneko legea Nafarroan gartzeko eta zer urrats emanen dituen foru erkidegoko udalei legea betetzeko behar dituzten bitarteko ekonomikoak eta gainerako baliabideak emateko.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 16an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Jabeldura, ureztalurraren arloan Nafarroako Gobernuak darabilen politikari buruzkoa.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak ureztalurraren arloan Nafarroako Gobernuak darabilen politikari aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikulua ezarritakoari jarraikiz, Osoko Bilkurarako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Sanz jaunari, eta tramitatzeko onar dezala eskatzen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari.

Jabeldura, erkidegoan ureztalurren azpiegiturak sustatzeko eta egiteko Nafarroako Gobernuak darabilen politika azal dezan.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot jabeldura hau aurkeztutzat jo eta behar bezala tramita dezan.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 23an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa txiki eta ertainen behatokia sor eta arau dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa txiki eta ertainen behatokia sor eta arau dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentarietara zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena

Abenduaren 12ko 1873/1997, abenduaren 14ko 2659/1998 eta azaroaren 20ko 1204/2002 errege dekretuek Enpresa Txiki eta Ertainen Behatokia definitu zuten elkarren arteko komunikaziorako foro gisa; xedea izanen zuen enpresen kolektibo horrek Espainian duen bilakaeraren jarraipen egokia egitea, dagoen informazioa ebaluatzea, azterlan berriak egitea, kolektibo horretan eragina duten arazoak sakonki ezagutzea eta komenigarriren jotzen diren konponbideak proposatzea.

Ministroen Kontseiluak berriki uztailaren 29ko 943/2005 Errege Dekretua onetsi du; haren bidez, Enpresa Txiki eta Ertainen Behatokia arautzen da eta ETE-ei buruzko politika espainiarra garatzen deneko egungo esparrua eratzen duten inguruarbarretara egokitzean da, hari malgutasun handiagoa eta funtzionamendurako efizientzia handiagoa emanez.

Globalizazioa, Asiako herrialdeen eta garapen bidean dauden herrialdeen merkatuen eragina edo ekoizpenaren dezentralizazioa bezalako fenomenoek, besteak beste, berekin dakarte ETEak une kezagarrian egotea, hain zuzen ere merkatuaren bilakaeraren arabera eraldatu eta egokitu behar diren unean.

Nafarroako Foru Komunitatea bere bilbe industrial eta produktiboa dibertsifikatu beharrean dago Nafarroako enpleguaren etorkizuna bermatuko badu, eta kontuan izanda Nafarroako enpresen bilbean enpresa txiki eta ertainek egiten duten ehuneko altua, beharrezko gertatzen da ukituriko eragile guztiek ahalegin komuna egitea, betiere modu efektiboan koordinatua eta bideratua.

Hartara, Nafarroako ETEaren Behatokia enpresa txiki eta ertainen kolektiboak Nafarroan duten egoera aztertzeke foro iraunkorra izanen da, eta enpresa txiki eta ertainen egituraren egoerari eta sektoreko enpresen sustapenari eta berrikuntzari buruzko azterlanak bideratu eta eginen ditu.

Topagune eta elkarrizketa gunea izanen da enpresa txiki eta ertainen sektorean interesak dituzten enpresetako erakunde eta elkarten ordezkarietatzat eta eragile sozialentzat, administrazio publikoentzat eta izen eta eskarmentu handiko adituentzat, erreferentzia gunea izan dadin

Nafarroako enpresa ertain eta txikien egoeraren jarraipena, analisia eta zabalkundea egiteko.

Modu berean, behatokiaren bitartez sustatuko da enpresa txiki eta ertainen egoera estrukturalari eta enpresen sustapenari eta berrikuntzari buruzko azterlanak egitea, enpresa txiki eta ertainentzako politiketarako praktika onen azterketa konparatiboa garatuko da, ekimen “kualitatiboak” eta enpresen “praktika hobeak, sozialki arduratsuak” zabalduko dira eta, aholkua emateko organoa den aldetik, sektorearen lehiakortasuna lagunduko duten neurriak proposatuko dira.

Azken batean, behatokiak, ahal den modu osoan, Nafarroako enpresa txiki eta ertainen erre-

alitatea ezagutuko du, administrazioak erabakiak eta jarduketa programa egokien garapena errazatzen gauza ditzan.

Erabaki proposamena

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren bitartez Enpresa Txiki eta Ertainen Behatokia sortu eta aurrerago hura arautu dezan.

Iruñean, 2005eko abenduaren 23an

Eleduna: Fernando Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak lehendakaria premiatzen da euren karguetatik ken ditzan Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilari Palacios Zuasti jauna eta Informazioaren Gizarterako zuzendari nagusi Ángel Sanz Barea jauna, Iruñean bi irrati lizentzia adjudikatzean izan zuten jokabidearengatik.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Nafarroako Gobernuak lehendakaria premiatzen da euren karguetatik ken ditzan Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilari Palacios Zuasti jauna eta Informazioaren Gizarterako zuzendari nagusi Ángel Sanz Barea jauna, Iruñean bi irrati lizentzia adjudikatzean izan zuten jokabidearengatik”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, 1140/2005 zenbakiko epaiaren bitartez, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren uztailaren 15eko 2343/1998 Foru Agindua deuseztatu zuen; foru agindu haren bitartez, bi irrati lizentzia esleitu zitzaizen Universidad de Navarra eta Medios de Comunicación 21-ri.

Epai horretan, administrazio espedientea atzera eragitea agintzen da, kontratazio mahaiak modu osoan eta zehatzean balora ditzan lehiaketa publikoan aurkezturiko eskaintzak.

Nafarroako Auzitegi Nagusiak Nafarroako Gobernuak lizentziak emateko harturiko erabakia deuseztatzeak berekin dakar, ezinbestez, administrazio espediente horren tramitazioaz eta kudeaketaz arduratu diren erantzule politikoengan gizar-teak zuen sinesgarritasun eta konfiantza galtzea.

Espedientea ezin da inolaz ere gai txiki baten edo garrantzi gutxiko gai baten gisara hartu, zeren eta lehiaketa publiko baten tramitazioaz eta ebazpenaz ari baikara, eta bertan jokoan daude herritarren oinarrizko eskubideak, hain zuzen ere adierazpenerako eta komunikaziorako askatasunari loturikoak.

Hartara, bada, hemen aurkezten zaiguna termino demokratikoetan larria da, larria baita Nafarroako Gobernuak interes edo aurreiritzi ideologiko edo alderdikoiak erabiltzea –hori epai judizialean ezarrita dago–, eta ez erabiltzea legezkoatasunaren eta zerbitzu publikoaren printzipioak, aipatu irrati lizentziak banatzeko garaian.

Epaiak aitortzen du orduko Garraio eta Telekomunikazio zuzendari nagusiak lehiaketako kontratazio mahaia ordeztu zuela eta berak egin zuela eskaintzak baloratzeko eta puntuatzeko lana. Elementu hori determinantea da eta indarrez adierazten du prozedura interes eta aurreiritzi ideologiko edo alderdikoeekin kutsatu zela.

Eta susmo hori, bere garaian parlamentu-ikerketak bat eta orain deuseztaturiko foru agindua sinatu zuen kontseilariaren gaitzespen politikoa eragin zituen, orain larriago eta handiago agertzen da Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaiarekin.

Gure ustez, administrazioaren funtzionamendu inpartzial, objektibo eta independentean zegoen

konfiantzaren galera larria, zeinak oinarrizko eskubideez baliatzean eragina baitu, modu jakin batez baizik ezin da zuzendu: espediente horren kudeaketaren arduradun politikoei erantzukizunak exijituz edo arduradun horiek erantzukizun horiek beren gain hartuz.

Hori dela-eta, IUN/NEBren parlamentu-taldeak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko lehendakari Miguel Sanz Sesma jauna premiatzen du Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilari José Ignacio Palacios Zuasti jauna, bere garaian Herrilan, Garraio eta Komunikazio zena, kargutik ken dezan; izan ere, bera izan zen uztailaren 15eko 2343/1998 Foru Aginduaren bitartez –hain zuzen ere, Nafarroako Auzitegi Nagusiak 1140/2005 epaiak deuseztatu duena– Iruñean bi irrati lizentzia Universidad de Navarrari eta Medios de Comunicación 21-ri esleitu zizkiena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko lehendakari Miguel Sanz Sesma jauna premiatzen du kargutik ken dezan Informazioaren Gizarterako zuzendari nagusi Ángel Sanz Barea jauna, bere garaian Garraio eta Komunikazio zuzendari nagusia zena; izan ere, lehiaketako kontratazio mahaia ordeztu eta berak egin zuen eskaintzak baloratzeko eta puntuatzeko lana.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 2an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan Uztartu Plana izenaz ezagutzen dena foru arauetara aldatzeko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan Uztartu Plana izenaz ezagutzen dena foru arauetara aldatzeko”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara

dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Langileek beren laneko bizitza eta bizitza pertsonala uztartu ahal izatea guztion eskubidea da, gizonezkoena eta emakumezkoena. Planteamendu horrekin bat etorritz, gobernu zentralak eduki betea eman nahi izan dio eskubide hori "enpresaburu" gisa diharduen lekuetan, hau da, Estatuko administrazio orokorrean.

Horrenbestez, berriki enplegatu publikoentzat laneko bizitza eta familia bizitza eta bizitza pertso-

nala uztartzeko plan integral bat aurkeztu da, hain zuzen ere sindikatuekin adostutako plana.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan Administrazio Publikoen Ministerioarekin berriki lorturiko akordioa –Estatuko administrazio orokorraren zerbitzuko langileen familia bizitza eta bizitza pertsonala lanarekin uztartzea bideratuko duten neurriek ekiteko plana, Uztartu Plana izenez ezagutzen dena– adosteko eta foru arauetara aldatzeko.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoko bidaiarien garraioa hobe dezan.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoko bidaiarien garraioa hobe dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak:

Bidaiarien garraioa etengabe ari da atzera egiten gure erkidegoan, Iruñerrian izan ezik, eta herri askotan desagertzen ere ari da.

Zerbitzua eta kontzesioa duten enpresek, hura emateko baldintzak direla eta, bazterturik uzten ari dira herri ugari eta haietako biztanleak; izan ere, biztanle horiei arreta emateak zailtasunak ekartzen dizkie enpresei batetik ibilbideengatik eta bestetik zerbitzuaren errentagarritasunaren alde-tik.

Praktikan, gure lurraldeko eremu zabaletan, eskualde guztietan, herritar ugari, bereziki adineko pertsonak, mugatua dute mugitzeko ahalmena, baita oinarritzko beharretarako ere, bidaiarien garraioak, oinarritzko eta lehentasunezko zerbitzua izanik ere, behera egin duelako.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen lotu dezan, akordioen bitartez, besterik ez bada ere bidaiarien garraiorako plana abian jartzen den bitartarako, herritarrek izanzen dutela behar duten arreta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskatzen duten udalekin

harremanetan jar dadin gaur egun erantzunik ematen ez zaien zerbitzuaren beharrianak zein diren zehazteko.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 9an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Altsasu eta Gasteiz lotzen dituen aldiriko trenaren zerbitzua mantentzeko.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Altsasu eta Gasteiz lotzen dituen aldiriko trenaren zerbitzua mantentzeko."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduko

192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak:

Parlamentu-talde honek jakin du Renfek Nafarroako Altsasu herria eta Gasteiz hiriburua lotzen dituen aldiriko trenaren kentzeko asmoa duela. Ikusita gure herritarrentzat funtzio garrantzitsuak betetzen dituela –funtzio soziala eta beharriari loturiko funtzioa–, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren hartu-eman eta kudeaketak egin ditzan Renferekin zein Eusko Jaurlaritzarekin, Altsasu eta Gasteiz lotzen dituen Renferen aldiriko tren-zerbitzuak bere horretan jarraituko duela bermatzeko.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 10ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kamioiei ez diezaien N-121-A errepidea erabiltzen utzi, harik eta obrak bukatu arte.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da kamioiei ez diezaien N-121-A errepidea erabiltzen utzi, harik eta obrak bukatu arte."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara

dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Herrilan Batzordearen hurrengo bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Irun-Iruñea ibilbidean kamioi astunen joan-etorri gero eta handiagoa nozitzen ari da. Trafikoko istripuen ondorioz hildakoak izan dira berriki, Lesakako 18 urteko neska gazte bat eta Igantzin ibaira erori zen Aragoiko kamioilari bat, eta Bidasoako herritarrek berriz ere exijitu diote Nafarroako Gobernuari N-121 errepideko obrak ahal bezain laster buka ditzala.

Eskualdeko bizilagunen presioen ondorioz, Nafarroako Gobernuak iragarria du 2006ko irailean eraikuntza-proiektua onetsiko dela, eta, gauzak ongi joanez gero, obren adjudikazioa 2007ko lehen hiruhilekoan eginen dela. Urtero hainbeste istripu izaten diren errepide hori hobetzeko lanak

26 hilabeteren buruan amaitzea aurreikusten da; hau da, hiru urteren buruan. Denbora gehiegi kamioien konpainia arriskutsuan ibilbide malkartsu horretan bizia jokoan jartzen duten milaka pertsonentzat.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren kudeaketa guztiak egin ditzan eragozteko errepide horretatik igartzako kamioiak ibil daitezten N-121 errepideko obrak bukatzen ez diren bitartean. Hau da, bitartean geldialdirik egin gabe Iruña-Irun ibilbidea egiten duten ibilgailu astunak A-8 eta A-15 (Leitzarango autobia) bezalako ordezeko ibilbideetatik desbideratzea.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 12an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua premiatzen da ikas-bonoa abian jar dezan.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua premiatzen da ikas-bonoa abian jar dezan"

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatu-

aren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioak:

Iruñerrian ikasle askok garraio publikoa erabiltzen dute beren ikastetxeetara egunero joateko: unibertsitateetara, institutuetara, lanbide heziketako ikastetxeetara, ikastegietara. Milaka gaztek garraio hori behar dute hirian barna mugitzeko.

Joan-etorrietarako garraio publikoa erabiltzea positiboa da hiri garbiagoak eta bizitzeko egokiagoak edukitzeko, baina, bestaldekik, garraio publiko egunero eta modu jarraian erabiltzeak, eguneko bidaia bat baino gehiago egiteraino ere, kostu ekonomiko handia ekartzen die familiei.

Iruñerriko bidaiarien hiri garraioko planetan, kolektibo jakin batzuetarako neurriak hartzeko aukera aurreikusten da, garraio publiko modu jarraituan erabiltzeak ez dezan izan haientzat hainbesteko kosturik.

Erabaki proposamena

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua premiatzen du bere jarduketa-esparruari dagozkion kudeaketak egin ditzan Iruñerriko Mankomunitateari eskatzeko "ikas-bonoa" izeneko ikasleentzako bonoa abian jartzeko ahal diren baldintza onenetan, garraio publikoa egunero erabiltzeak familiei ekartzen dien gastua arintze aldera.

2.- Parlamentuak Iruñerriko Mankomunitateari eskatzen dio aintzat har dezan "ikas-bonoa" ezartzeko aukera, garraio publikoaren erabilera errazteko neurri gisa, hartara erabiltzaile horien fidelotasuna sarituz eta familiei garraio publikoa egunero erabiltzeak ekartzen dien diru karga arinduz.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 18an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da jarduketa protokolo bat taxutu dezan, zeinaren bitartez Nafarroako administrazio publikoek genero indarkeria arbuiautuko duten.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernuak premiatzen da jarduketa protokolo bat taxutu dezan, zeinaren bitartez Nafarroako administrazio publikoek genero indarkeria arbuiautuko duten".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordean eztabaidatu eta, kasua bada, onesteko.

Zioen azalpena

Astero emakume bat edo gehiago hiltzen dira generoko indarkeriaren ondorioz. Ikus bedi senarren, bikotekideen edo/eta bikotekide ohien eskuatik aurten hilik gertatu diren emakumeak.

Nahiz eta Espainian –Generoko indarkeriaren aurkako lege integralaren bitartez– eta foru erkidegoan –azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legea, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzeko, uztailearen 2ko 20/2002 Foru Legea eta martxoaren 7ko 12/2003 Foru Legea– ahaleginak egin diren, emakumeen heriotzak, emakume izate hutsarengatik, oraindik ere gertatzen dira eta areagotzen ari dira.

Hori dela eta, beharrezkoa da botere publikoek ahaleginak eta keinuak egitea matxismo kriminaleko eta indarkeriako jarrera horiei aurka egiteko.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du jarduketa protokolo bat diseina dezan, haren bidez Nafarroako administrazio publiko guztiek arbuiorik erabatekoena erakuts dezaten generoko indarkeriaren biktima diren emakumeen heriotzengatik, doluminak bidal ditza ten gertaera tamalgarriak gertatu diren herri eta hirietara eta kontzentrazioerako deia egin dezaten Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko emakumeen hilketengatik arbuioa adierazteko, bai eta gizartearen kontzientziak edo alarmak hori gomendatzen dutenean ere. Ekintza horiek guztiak Nafarroako Emakumearen Institutuan zentralizatuta egonen lirarteke, bera baita berdintasunaren arloko Nafarroako organo gorena.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 19an

Eleduna: Fernando M.^ª Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da hitzarmen bat izenpetu dezan Berriozarko Udalarekin, emakumeari laguntzeko Laira zentroa finantzatzeko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernuia premiatzen da hitzarmen bat izenpetu dezan Berriozarko Udalarekin, emakumeari laguntzeko Laira zentroa finantzatzeko."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena

Berriozarren ginekologia, familia plangintza eta emakumeari laguntzeko zerbitzuak eskaintzen dituen zentro bat dago, oinarritzko eskualde hartako emakume ugari 1986tik osasun laguntza eman diona.

Emakumeari laguntzeko Laira zentroak batez ere udalaren funtsekin egiten du lan. Zerbitzu horren kostu osoa Berriozarko Udalak hartzen du bere gain, eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza txikiak ere jasotzen ditu kasuan kasuko deial-

diei esker. Zerbitzu hori emateak 145.000 euroko kostua ekartzen dio Berriozarko Udalari; kopuru handi hori zama handia da herri hartan beharrezkoak diren beste inbertsio batzuk abian jarri ahal izateko.

Beste garai batzuetan, udal zentro hauek Nafarroako Gobernuari eskualdatu zitzaizkion, baina, ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, zentro honekin ez zen halakorik egin. Garrantzitsua da esatea emakumeari laguntzeko zerbitzuaren eskumena O-NOZI dagokiola, Nafarroako emakumeari laguntzeko zentro guztiekin gertatzen den bezala.

Berriki, Berriozarko Udalak aho batez onetsi zuen Nafarroako Gobernuarekin hitzarmen bat sinatzeko akordioa, aipatu zentroa finantzatzeari buruzkoa.

Aurrekontuak eztabaidatu eta onetsi ondoren, ez da inongo kopururik ageri hitzarmen hori aurrera eramateko. Nafarroako Gobernuak kontusaila aurreikustea ahazteaz gainera, talde sozialistak xede horretarako aurkezturiko zuzenketa ere atzera bota zuen.

Egoera hori kezagarria da Berriozarko Udalarrentzat eta parlamentu-talde honentzat, eta iruditzen zaigu trabak eta zailtasunak jartzen ari direla Nafarroako Gobernuaren eskumena den gai baterako.

Horiek horrela, mozio hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du Berriozarko Udalarekin hitzarmen bat izenpetu dezan emakumeari laguntzeko Laira zentroa finantzatzeko.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da neurriak har ditzan administrazio publikoek bidezko merkataritzan eta kontsumo arduratsuan parte har dezaten.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernuak premiatzen da neurriak har ditzan administrazio publikoek bidezko merkataritzan eta kontsumo arduratsuan parte har dezaten".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Bidezko merkataritza aukera bat da kontsumitzaileak, administrazio publikoak, merkataritza eta enpresak sentibilizatzeko. Eredu horrek bilakaera errespetagarria izan du azken hamarkadetan; hala eta guztiz ere, mugimendu gaztea da, baina nabarmen hazten ari dena eta ahalmen oso handikoa. Merkataritza horrek bideak eskaintzen dizkie ekoizleei beren ekoizpenak irizpide etiko, ekonomiko, sozial eta ekologikoen arabera merkaturatzeko. Integrazio horrek berekin dakar merkaturatutako produktuetan onura ekonomikoa bilatzea eta langileen baldintzak eta ingurumena errespetatzea ekoizpenak landu eta merkaturatzean.

Europako Parlamentuak "iparraldearen eta hegoaldearen arteko bidezko merkataritzari eta merkataritza solidarioari buruzko ebazpen bat onetsi zuen". Haren hasieran esaten zuen "merkataritza harreman zuzengabeak direla iparraldearen

eta hegoaldearen arteko egiturazko desoreka determinatzen duten arrazoiak batzuk". Ebazpen horrek, besteak beste, adierazten zuen bidezko merkataritzaren aldeko ekimenak "aitzindaritzan lan handi bat direla" "aitortza eta babeseraren duena bere izaera eredu-garriarengatik; gai sozialengatik eta ingurumenarengatik kezkatutako iparra-hegoa kooperazioaren osagaia bilakatu behar dira".

Bidezko merkataritzaren alde lan egiten ari diren erakunde europarrek mugarriztat jo duten ebazpen horren gomendio nagusia, halere, estatu kideei zuzendutakoa da. Ekimen horrek Europar Batasuneko herrialdeak premiatzen ditu "neurriak har ditzaten" entitate sozial eta ekonomiko horiek "aitortzeko eta sustatzeko neurriak hartzeko, ikuspegi juridikotik, finantzariotik eta antolamenduzkotik", bai eta "erakunde horien jarduerak batzuk lagun ditzaten eta behar bezala kontuan har ditzaten Europako Garapen Funtsaren baliabideak erabiltzeko".

Halaber, azken egun hauetan, La Moncloako Lehendakariak Idazkaritza Nagusiko arduradunak eta Intermón Oxfameko Bidezko Merkataritzaren Departamentua akordio batera iritsi dira EKE horrek merkataritza zuzeneko kafeaz hornitzeko. Horri dagokionez, La Moncloako konpromisoa norabide horretan aurrera egiteko adibide bat da.

Nafarroan bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuen aldeko ekimenak hor dira, ikus daitezke; aitzindari direnez, erakunde publikoen aitortzea eta laguntza merezi dute beren eredu-izaeragatik eta globalizazio ekonomikoaren garai honetan merkataritza harremanetako alderdi sozialeko eta ingurumenarekiko hazten ari den gizartearen sentiberatasunarekiko lotura estua dutelako.

Aurreko guztia dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du neurri juridikoak, finantzarioak eta antolamenduzkoak har ditzan administrazio publikoek parte har dezaten bidezko merkataritzan eta kontsumo arduratsuan, eta arlo horretan lan egiten duten erakundeen ondoko jarduerak babes ditzan: kontsumitzaileei informazioa ematea, hez-

kuntza, sentsibilizazioa, merkatuko mintzakideen informazioa, eta iraunkortasunaren teknologiak sartzea merkatuaren kate osoan.

2. Lehenbiziko urrats gisa, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du

administrazio publikoen egoitza guztietan merkataritza “tradizionaleko” kafearen ordez bidezko merkataritzako kafea erabil dadin.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 24an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan Interneteko domeinu bereki eta berariazkoa kudeatzeko.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan Interneteko domeinu bereki eta berariazkoa kudeatzeko.”

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietarik zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Domeinu-izenen sistema (DNS ingelesez) Interneten egungo egituraren oinarrietako bat da eta funtsezko elementua da haren funtzionamendurako, gaur egun jakina den bezala.

Espainiako estatuaren barruan, Kataluniarako eta Galiziarako domeinu-izen berekia lortzearen aldeko ekimenek agerian utzi dute, era berean,

izen horiek gizartearen interesa pizten dutela, mundu errealean dauden erkidegoak sarean identifikatzeko elementuak baitira.

Domeinu-izenen sistema da, azken batean, sareko erabiltzaileen eta hartan diharduten era guztietako eragileen identifikazio bide nagusia.

Hori guztia dela eta, Nafarroari Interneten “na” domeinu berekia emateak balioko luke berariazko presentzia bat emateko eta gure produktuak eta zerbitzuak –bereziki gure identitate berekiaren markan oinarritzen direnak– Interneten munduan eta hasten ari den merkatu batean kokatzeko.

Gure ustez, kooperatibek, esate baterako, industria aeronautikoak edo museoek Interneten, erkidego gisa aitortuta, beren domeinua badute, Nafarroako gizarteak oso oinarri garrantzitsua dauka “na” domeinua edukitzeko.

Era berean, erakundeentzat eta Nafarroako entitateentzat “na” domeinua erabiltzea Nafarroak berezkoa duen berezitasun eta,aldi berean, dibertsitate sozial eta kulturalaren isla fidela izanen litzateke.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren kudeaketak egin ditzan Interneteko domeinu-izenen kudeaketaren arloko behar diren nazioarteko entitateen aurrean Nafarroarentzat domeinu bereki eta berariazkoa lortzeko.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 19an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

F saila:
GALDERAK

Galdera, aukeren berdintasunaren arloko maila ertaineko teknikari lanpostu bat betetzeko deialdiaren legezkotasunari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AURELIA LUMBRERAS IÑIGO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea aukeren berdintasunaren arloko maila ertaineko teknikari lanpostu bat betetzeko deialdiaren legezkotasunari buruz foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

2005eko maiatzaren 16an, Nafarroako Emakumearen Institutuak deialdi bat egin zuen, INEMen

bitartez, aukeren berdintasunaren arloko maila ertaineko teknikari lanpostu bat betetzeko.

50 pertsona onartu zituzten, eta telefonoz esan zitzaizen uztailean proba objektibo bat eginen zela. Azterketa atzeratu egin zen, formazko akatsen bat zela medio.

Berriki, telefono dei baten bidez, bere denboran onarturik zeuden pertsona askori esan zaie ezin direla lanpostu horretara sartu berdintasun eragilearen titulua edukitzeko baldintza betetzen ez dutelako.

Egindakoa ikusita, ondoko galdera egiten diot Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari, Nafarroako administrazio publikoko lanpostuak betetzeko prozesuetan legea bete dadin bermatzeko erantzule politiko gorena den aldetik, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Legea bete al da aipatu Nafarroako Emakumearen Institutuak eginiko deialdian eta ondorengo administrazio-jarduketetan?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Aurelia Lumbreras Iñigo

Galdera, FMko lizentziak baliogabetu dituen Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaiari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea FMko lizentziak baliogabetu dituen Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaiari buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman daki on.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion.

Gobernuak 1998an egin zuen FM lizentzien adjudikazioari buruz Nafarroako Auzitegi Nagusiak eman duen epaia ezaguturik, gobernuak lehendakari jaunak bere karguetan utziko al ditu Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilari Palacios jauna eta Informazioaren Gizarterako zuzendari nagusi Sanz Barea jauna?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Nafarroako Liburutegi Nagusirako eta liburutegien sarerako liburuak nahiz ikus-entzunezkoak erosteari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Nafarroako Liburutegi Nagusirako eta liburutegien sarerako liburuak nahiz ikus-entzunezkoak erosteari buruz foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

dezan Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran.

Nafarroako liburu-dendei 2005eko martxoko datarekin igorritako gutun batean jakinarazi zitzaizenez, Nafarroako Gobernuak aurreikusia zuen aurtengo bigarren seihilekoan liburuak eta ikus-entzunezkoak erosteko lehiaketa publikorako deialdia egitea, hain zuzen ere Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistema hornitzeko.

Nafarroako Gobernuak 30 urtez Nafarroako Liburutegi Nagusia eta gero Liburutegien Sarea gure foru erkidegoko liburu-saltzaileen bitartez hornitu ditu.

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo kontseilari Corpas jaunak ahoz erantzun

Sistema beri honek Nafarroako liburu-dendek Liburutegi Nagusiarentzat eta Liburutegien Sarea-arentzat –eta, noski, orobat erkidego honetako herritar guztientzat– egiten zuten lana eta zerbitzua deuseztatu du.

Erabaki arbitrario horrek arazo larriak eragin ditu Nafarroan irakurzaletasuna eta kultura susta-

tzeko hain lan handia egin duten eta egiten ari diren liburu-denda askotan.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

- Zergatik adjudikatu zion Kultura Departamentuak Nafarroaz kanpoko enpresa handi bati liburu-erosketa, gure erkidegoko liburu-saltzaileek urte luzez gure erkidegoarentzat egin duten lana alde batera utziz?

- 2005eko bigarren sei hilekoan ezarritako sistemari eutsi behar al dio departamentuak?

- Nola lagundu behar dio Kultura Departamentuak liburuaren sektoreari mantentze dadin, kontuan izanda kulturaren euskarri nagusietako bat direla?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, Berriozarko trenbide-pasagunea kentzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Berriozarko trenbide-pasagunea kentzeari buruz foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervasek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilari Álvaro Miranda Simavilla jaunak ahoz erantzun dezan Legebiltzarreko Osoko Bilkuran.

Galdera:

Kontseilari horren ustez, noiz kenduko da Berriozarko trenbide-pasagunea? Nola kendu behar da? Kasua bada, noiz hasiko dira obrak eta zein epetan egingen dira?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren gehieneko tasa jaisteari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren gehieneko tasa jaisteari buruz foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko eledun José Miguel Nuin Morenok, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Joan den ostegunean, urtarrilaren 3an, Nafarroako Gobernuko lehendakariorde eta Ekonomia kontseilariak Erriberako Enpresaburuen Elkartearekin eginiko bilera batean iragarri zuen gobernuak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZa) gehieneko zerga tasa jaitsi nahi zuela egungo % 44tik % 39ra.

Errenta altuenen zerga presioa nabarmen jaistearen asmoa sortu da nahiz eta Nafarroako araudi fiskala izan Espainia guztian zerga tasa txikiena daukana.

Hartara, Nafarroak % 44 hori ezarrita duen bitartean, euskal aldundietan % 48a aplikatzen da eta estatuko gainerako lurraldeetan % 45a.

Hala eta guztiz ere, UPN eta CDNren gobernuak, dirudienez, erabakia du urrunago joatea zerga honengatik gehieneko zerga tasak gutxitzeko bidean.

Hala eta guztiz ere, Estatuaren eta Nafarroaren arteko hitzarmen ekonomikoko 7. artikulua, zeinak Estatuko eta Nafarroako tributu araubideak harmonizatzeke irizpide orokorrak arautzen baitu, ezarrita dauka Nafarroak, tributu arauak lantzerakoan, estatuko gainerako lekuetan dagoen presio fisiko eraginkor orokor bera ezarriko duela eta hari eutsiko diola.

Hartara, bada, Nafarroak PFEZaren gehieneko tasa % 39ra jaisten badu, lurralde erkidegoko tasatik 6 puntu beherago geratuko da, eta euskal aldundietako tasatik 9 puntu beherago.

Alde hori ez da ongi ezkontzen "presio fiskal orokor baliokidearen" kontzeptuarekin, eta bai, agian, Nafarroa zerga honengatik tributatzaren duten errenta altuetarako halako "oasi fiskal" bat izan dadila lortu nahi izatearekin.

Gainera, Nafarroako Gobernuaren iragarpen hori gertatu da oinarritzko zerbitzu publikoek, Nafarroako osasun eta hezkuntza publikoek kasu, finantziario arazo etengabeak eta nabarmenak dauzkaten une batean.

Etengabeak dira oinarritzko politika publikoetan kalitate maila nahikoa bermatzeko presako eta funtsezko inbertsioetan gertatzen ari diren atzerapenak eta etenak ere.

Egoera tamalgarri eta lazarri horren erakusgarri gisa, nahikoa da esatea, adibidez, ezer ere ez dakigula gobernuaren beraren plangintzaren arabera 2005ean bete behar ziren hezkuntza arloko hamar inbertsiori buruz.

Honakoak dira inbertsio horiek: Antsoaingo Ezkaba ikastetxe berria, Agoizko ikastetxe publiko gela berriak, Lizarrako Remontival multzoko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko berria eta institutu berria, Larragako ikastetxea handitzea, Otsagabiko DBH1a handitzea eta berritzea, Oteitzako ikastetxea handitzea, Iruñeko Patxi Larraintzar eta Ave María ikastetxeetarako eraikin berria, Iruñeko Donibane BHI handitzea, Tutereaiko Valle del Ebro BHI handitzea eta Zizur Nagusiko ikastetxe berria.

Hezkuntzaren arloko arestian aipaturiko inbertsio horiek guztiek 20 milioi euro inguruko finantziarioa eskatzen dute, eta 2005ean exekutatu beharko lirake. Halakorik ez dago.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuko lehendakariak, Foru Gobernuaren arduradun gorena den aldetik, ondoko galderari erantzun diezaion nahi dugu:

– Uste al duzu egun indarra daukan hitzarmen ekonomikoren 7. artikulua batez beste dela zure gobernuak egin duen iragarpena, alegia, PFEZaren gehieneko tasa gaurko % 44tik % 39ra jaistea? Uste al duzu Nafarroan estatuko gainera-

ko lurraldetakoaren parekoa den presio fiskal eraginkor orokorrari eutsiko zaiola?

– Komenigarritzat jotzen al duzu, gure hezkuntzaren eta osasun publikoaren finantziatorako zailtasun nabarmen, jarraitu eta larriak ikusita, errenta altuenen PFEZaren zerga tasa gehienekoa

jaistea? Bateragarria al da jaiste hori hezkuntzarako eta osasun publikorako finantzaketa nahikoa bermatzearekin?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, Toki Administrazioiko Departamentuak Zuñigako Udalaren erabakien legezketasuna kontrolatzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Toki Administrazioiko Departamentuak Zuñigako Udalaren erabakien legezketasuna kontrolatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Toki Administrazio kontseilariak idatziz erantzun dezan.

1. Kontrolatzen al du Departamentuak Zuñigako Udalaren erabakien legezketasuna?

2. Ezagutzen al dira bertako herritarrek salaturiko udalaren erabaki irregularrak edo legez kanpokoak? Haien xehetasunak eta departamentuak eginiko jarduketak ezagutu nahi ditugu.

3. Ezagutu al du edo ezagutzen al du Toki Administrazioiko Departamentuak alkateak eta Zuñigan gehiengoa duen taldeak daukaten asmoa, hain zuzen ere osatzen duten udalen multzoa abandonatzea?

4. Ezagutu al du edo ezagutzen al du Zuñigako Udalak beste udal-elkarteren batean sartu nahi ote duen?

5. Ba al daki departamentuak alkateak udal idazkaria kargutik kendu duela?

6. Departamentuaren ustez, legezkoa al da idazkaria kargutik kentzeko erabakia?

Iruñean, 2005eko abenduaren 23an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, Nafarroaren esportazioak murrizteari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELMA SAIZ DELGADO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak egindako galdera, Nafarroaren esportazioak murrizteari buruzkoa. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Elma Saiz Delgadok, Legebiltzarreko Erregelamenduan

xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Estatistika Institutuaren datuen arabera, 2005eko irailean esportazioek % 13,9 egin zuten behera 2004.ekoekin alderatuta.

- Nafarroako esportazioen hartzaileak diren herrialdeen arabera, zein da Nafarroako Gobernuaren balorazioa salgaien esportazioak behera egin izanari buruzko datuen gainean?

- Zein dira 2006rako aurreikuspenak eta zure departamentuak gai honetan egin behar dituen jarduketak?

Iruñean, 2005eko abenduaren 23an

Foru parlamentaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, Olaztin errausteko industria-jarduera abian jartzeko aukerari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egindako galdera, Olaztin errausteko industria-jarduera abian jartzeko aukerari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Félix Taberna jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko.

Cementos Portland, S.A. enpresa hondakinak errausteko jarduera industrialean hasteko aukera aztertzen ari da; hori dela eta, kezka handia dago Olaztin eta, oro har, Sakanako eskualdean. Liteke-

ena da enpresa hori honezkero hasia izatea Nafarroako Gobernuan tramitazio administratiboa egin behar diren baimenak lortze aldera.

Aukera horrek alarma piztu eta zeresanak eragin ditu Nafarroako eskualde horretako bizilagunen artean, ezin baitira jakin hondakinak errausteko ingurumenean eta osasunean izan ditzakeen ondorioak.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

- Ea Nafarroako Gobernuak badakien Cementos Portland, S.A. enpresak interesa edo asmoa ote duen Olaztiko plantan hondakinak errausteko jarduera industrialia abian jartzeko. Hala bada, zein motatako hondakinak erreko dituen.

- Ea Nafarroako Gobernuak Cementos Portland S.A. enpresaren xede horretarako edozein motatako eskaera, kontsulta edo ekimen administratiborik jaso duen. Eta hala bada, zein motatako hondakinez ari garen, zein izan diren Nafarroako Gobernuak eman dituen urratsak eta espedientearen tramitazio administratiboa zertan den.

– Zein den Nafarroako Gobernuak duen jarrera Nafarroan hondakinak errausteko jarduera industrial bat ezartzeko aukerari buruz.

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, haurdunaldia nahita eteteari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, haurdunaldia nahita eteteari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Osasun Ministerioak jakitera eman ditu haurdunaldiak eteteari buruzko datu ofizialak. 2004an, Nafarroan 639 etete izan ziren guztira, 2003an baino % 6,3 gehiago. Datu horiek kezkarriak dira, agerian uzten dutelako egoera horiei aurrea hartzeko sexu heziketa gehiago eta hobe behar dela, eta, orobat, Nafarroako emakumeek eskubide horretaz baliatzeko foru erkidegoan dauzkaten zailtasunengatik.

Nafarroa oraindik ere Espainiako autonomia erkidego bakarra da non 9/1985 Lege Organikoak ezarritako kasuetan emakumeek haurdunaldia nahita eteteko aukerarik ez duten.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

1. Zenbat emakume nafarrek joan behar izan dute beste autonomia erkidego batzuetara 2003an, 2004an eta 2005ean haurdunaldia nahita eteteko? Zehaztu zein osasun zentrotara.

– Zenbat emakume nafar bidali dira beste autonomia erkidego batzuetara 2003an, 2004an eta 2005ean haurdunaldia nahita eteteko? Zehaztu zein osasun zentrotara.

2. Zenbateko kostua izan du foru ogasunarenzat 2004an eta 2005ean haurdunaldiak nahita eteteak? Ordaindutako kasuen kopuruari eta haien kostuari buruzko informazioa eskatzen dugu.

3. Zenbat emakume nafarrek ordaintzen dituzte, oraindik ere, beren poltsikotik haurdunaldien eteteak. 2003, 2004 eta 2005eko datuak nahi ditugu.

4. Zein aurreikuspen dauzka Nafarroako Gobernuak emakume nafarren egoera bidegabe eta baztertzailerekin bukatzeko?

5. Ba al du Nafarroako Gobernuak kezkarik emakume nafarrei ez eskaintzeagatik beren erkidegoan bertan beste autonomia erkidegoek eskaintzen duten osasun zerbitzu hori?

6. Gora doazen datu horien aurrean, zer egitea aurreikusi du Nafarroako Gobernuak sexu heziketaren arloan?

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, N-121-A errepideko Etxalarko bidegurutzean segurtasuna areagotzeko ekimenei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, N-121-A errepideko Etxalarko bidegurutzean segurtasuna areagotzeko ekimenei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaien.

Etxalarko Udalak, uztailaren 8an eginiko bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Gobernuari eskatzea hobekuntza lan batzuk egin ditzan N-121-A errepideko Etxalarko bidegurutzearen inguruko segurtasuna areagotzeko.

Segurtasunaren ikuspuntutik, udal horrek ondoko arriskuak ikusi ditu:

1.- Iruña-Irun norabidean, bidegurutzea baino lehen, ia 90 graduko bihurgune bat dago, malda piko batean bukatzen dena, eta hartatik hasten da, hain zuzen ere, Etxalarrerantz doan lotunerako bide-banaketa. Malda piko horrek galgatzeko eta maniobra egiteko arazoak eragiten dizkie ibilgailu astunei, hil honetako 15ean gertatu zen istripua ikusita egiazta daitekeen bezala; izan ere, kamioi bat, kontrola galduta, bidetik kanpora erori zen. Horren ondorioz, N-121-A errepidea moztuta izan zen lau ordu baino gehiagoz.

2.- Etxalarko bidegurutzea. Bidegurutze horretantxe, Etxalarrera doan erreia, Irun-Iruña (stop)

norabidean, errepidearen erdian dago. Kontuan hartu behar da erreia zabalera txikia dela, eta kontuan hartu behar da ere Iruña-Irun norabideko malda pikoak, zeinak ekartzen baitu beheantze doazenek abiadura handiak harrapatzea, eragiten duela ibilgailu askok, batez ere astunek, Etxalarrera sartzeko erreia inbaditzea bidegurutze berean hasten den bihurgunea egiten dutenean. Arriskua heldu da ibilgailu horiek talka egin dezaketelako NA-4400 errepidera (Etxalar) doan stoppean geldirik dauden ibilgailuekin.

3.- Etxalarko bidegurutzea. Bidegurutzean bertan, Irun-Iruña norabidean goazela, zuhaitz usu batzuk badaude errepidearen eskuineko ertzean, Etxalarrera sartu nahi dugunean ikusmena nabarmen galarazten dutenak. 50 metro eskaseko ikusmena zehatz daiteke Etxalarrera doan bidearen stopetik begiratuta.


Hori guztia dela eta, udal honek erabaki zuen hurrengo hobekuntza lanak egin behar direla:

1.- "Zeharkako soinu-banden" erako seinaleak ezartzea bidegurutzearen (Iruña-Irun norabidean) aurreko maldaren hasieratik (bihurgunea) Etxalarrera sartzeko geroko bihurgunearen hasieraraino, Iruñera goazela. Seinale horiek osa litezke "bidegurutze arriskutsua" seinale bertikal berariazkoa jarritz, hain zuzen ere Lesakako bidegurutzean jarri den bezala.

2.- Erreia zabaltzea Etxalarrera sartzeko bidean, Irun-Iruña norabidean, eta errepide nagusian Iruña-Irun norabidean, behin Etxalarrera sartzeko bidea iraganik dauden irlatxoak gutxituz.

3.- Errepideko eskuineko hertzean, Irun-Iruña norabidean, dauden zuhaitzak garbitzea edo inaustea.

Ondoko krokisean, jarduketa horietarako proposatzen den eremua zehaztu da. 1:5.000 eskalako kartografia erabili dugunez, hori baita eskura dagoen bakarra, zehaztasun maila ez da proposatzen dugunaren hurbilpen bat baizik.



Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

- Zer ekimen jarri ditu abian Nafarroako Gobernuak eskualdeko segurtasuna areagotzeko?
- Udalaren eskaria beteko al du Gobernuak, Etxalarko bidegurutzea moldatzeari dagokionez?

– Igorri al dio Nafarroako Gobernuak erantzunik?

– Hala bada, zein dira exekuzio epeak, eta zein kontusailaren kargura ordainduko dira?

Iruñean, 2005eko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Uharteko Euskal Jai Berri frontoian eta beste kirol eremu batzuetan Tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezarri eta tabakoaren produktuen salmenta, kontsumoa eta publizitatea arautzeko Legea urratzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Uharteko Euskal Jai Berri frontoian eta beste kirol eremu batzuetan Tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezarri eta tabakoaren produktuen salmenta, kontsumoa eta publizitatea arautzeko

Legea urratzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

2006ko urtarrilaren 1ean indarra hartu dute tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezarri eta tabakoaren produktuen salmenta, kontsumoa eta publizitatea arautzeko abenduaren 26ko 28/2005 Legeko xedapen guztiek; lege horrek, besteak beste, debekatu egiten du kirol-eremu itxietan erretzea.

Hala eta guztiz ere, urtarrilaren 2ko egunkariaren albistean arabera, debeku hori ez zen bete Uharteko Euskal Jai Berri pilotalekuan aplikatu behar zen lehenbiziko egunean. Argitaraturiko informazioan, besteak beste, honakoak agertzen dira:

erretzen ari diren pertsonak, araua betetzeko borondaterik ez dutela adierazten duten erretzaileak eta legearen betetzea zalantzan jartzen duten pilotalekuko langileak.

Foru erkidegoko administrazioaren eskumena denez lege hori betearaztea, Nafarroako Gobernuak honako galderei erantzutea nahi dugu.

Foru erkidegoko administrazioeko organo eskudunak zehapen espedienterik ireki al dio Euskal Jai Berri pilotalekuko titularra den enpresari, 28/2005 Legean ezarritakoa nabarmenki ez betetzeagatik?

Hala bada, zein neurri hartuko dira pilotaleku horretan eta beste kirol-eremu batzuetan legea beteko dela bermatzeko?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 2an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, ostalaritza establezimenduetan Tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezarri eta tabakoaren produktuen salmenta, kontsumoa eta publizitatea arautzeko Legea urratzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok egindako galdera, ostalaritza establezimenduetan Tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezarri eta tabakoaren produktuen salmenta, kontsumoa eta publizitatea arautzeko Legea urratzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

2006ko urtarrilaren 1ean indarra hartu dute Tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezarri eta tabakoaren produktuen salmenta, kontsumoa

eta publizitatea arautzeko abenduaren 26ko 28/2005 Legeko xedapen guztiek; lege horrek, besteak beste, debekatu egiten du publikoarentzako 100 metro koadroko azalera baino gehiago duten ostalaritza establezimenduetan erretzea, eta, edonola ere, lokal guztiak behartzen ditu erretzeko edo ez erretzeko debekuari buruzko seinaleak eta erretzeko edo ez erretzeko lekuei buruzko seinaleak jartzera.

Legeak indarra izan duen lehen bi egunetan agerikoa eta nabarmena izan da legea ez dela bete; izan ere, establezimendu gehienek seinaleak falta zituzten eta erretzea debekatuta dagoen lokal askotan jendeak erretzen jarraitzen zuen.

Foru erkidegoko administrazioaren eskumena denez lege hori betearaztea, Nafarroako Gobernuak honako galderei erantzutea nahi dugu.

Zein neurri hartuko dira ostalaritza establezimenduetan lege hori beteko dela bermatzeko? Zein giza- eta gauza-baliabide jarriko dira xede horretarako?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 2an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, Itzea etxea, Caro Baroja sendiaren jabetzakoa baita, museo bihurtzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egindako galdera, Itzea etxea, Caro Baroja sendiaren jabetzakoa baita, museo bihurtzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

2005eko abenduaren 31ko Diario de Noticias egunkarian Pío Caro Barojari eginiko elkarrizketa bat eman zen argitara; bertan azaltzen da Caro Baroja familiak eskaintza bat egin ziola arestian Nafarroako Gobernuari Itzea, familia horrek Beran duen etxea, museo bihurtzeko. Dirudienez, eskaintzari ez zaio erantzunik eman.

Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

Egia al da Caro Baroja familiak eskaintza hori egin diola Nafarroako Gobernuari? Zein hartu-eman edo elkarrizketa izan dira horretaz hitz egiteko? .

Ba al du Nafarroako Gobernuak aurreikuspenen bat Itzea etxea museo bihurtzeko edo etxe horrekin beste zerbaiteko?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 2an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, Buñuelgo Udalak zenbait lurzati borondatez birzatatzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Buñuelgo Udalak zenbait lurzati borondatez birzatatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aur-

keztu du, Toki Administrazio kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Jakina da:

– Buñuelgo Udalak Buñuelgo Udal Planeko UD 29 unitateko 78. eta 79 lur-zatiak borondatez birzatatzea onetsi zuela 2003ko abenduaren 18an.

– Birzatatze horretatik bost lurzati atera zirela, jabe desberdinenak.

– Lurzati berrietatik, 5.a UNPko zinegotzi Jesús Sáez jaunari egokitu zitzaioela; lurzati horrek ez zeukan eraikigarritasunik esleiturik.

– 2005eko martxoan, zinegotziak hirigintza lizentzia lortu zuela 5. lurzatian, zeinetan eraikitze-ko eskubiderik ez baitzuen, igerilekua, ataripea eta trastelekua eraikitzeko.

– 2004ko otsailean, Jesús Sáez zinegotziak notarioari dokumentazioa aurkeztu ziola lurzati

berriak eskrituretan jasotzeari ekiteko, eta dokumentazio horren zati bat ez datorrela bat Osoko Bilkurak onetsitakoarekin.

– 2005eko azaroan, Jesús Sáez zinegotziak arestian aipaturiko borondatezko birzatatzea aldatzeko proiektua aurkeztu zuela udaletxean; horretarako jabe guztien adostasuna ez izateaz gainera, 2. lurzatiari eraikigarritasuna kendu eta 5. lurzatiari esleitzen dio, hain zuzen ere bereari.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

– Ezagutu al ditu edo ezagutzen al ditu Toki Administrazioiko Departamentuak irregularrak izan

daitezkeen jarduketa horiek? Hala baldin bada, emandako urratsei buruzko txostena nahi dut.

– Noiz berrikusi ditu edo berrikusiko ditu Toki Administrazioiko Departamentuak gain honi buruz Osoko Bilkurak hartutako erabakiak edo alkatetzak emandako ebazpenak?

– Zein neurri hartu du eta hartu behar du departamentuak salatutako irregulartasunak gauza daitezen saihesteko?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, erradioterapiako tratamendua hartzeko Klinika Unibertsitariora bideratutako gaixoei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, erradioterapiako tratamendua hartzeko Klinika Unibertsitariora bideratutako gaixoei buruzkoa. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Nafarroako Ospitaleko azeleragailu linealak behin eta berriz izan dituen matxurak direla-eta eta gaixoak Klinika Unibertsitariora erradioterapia tratamendua hartzea bideratzea direla eta, honakoak jakin nahi ditugu:

- Zenbait gaixo bideratu dira Klinika Unibertsitariora 2005ean erradioterapia tratamendua hartzera? Bideratze horien arrazoiak zehaztea nahi dugu.

- Aurreko datua ikusita, zenbat bideratu dira azeleragailuan izandako matxurarengatik?

- Zenbateko kostua du O-NOZentzat Klinika Unibertsitarioko erradioterapia saio batek?

- Zenbateko kostua izan du 2005ean, guztira, erradioterapia tratamendua hartzeko gaixoak Klinika Unibertsitariora bideratzeak?

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, hiru azeleragailu linealen erosketari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, hiru azeleragailu linealen erosketari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Nafarroako Gobernuak, 2001eko ekainaren 11n, plan onkologikoa onetsi zuen.

Planaren funtsezko erdigunea zentro onkologikoa eraikitzea zen. Heldu beharreko gai garrantzitsuena eta lehentasunezkoa zen erradioterapiaren arloa. Planak jarduteko kronograma eta zenbatespen ekonomiko bat aurreikusten zituen.

Xede horretarako 2003., 2004. eta 2005. urteetan aurrekontuetan jasotakoaren eta betetakoaren jarraipena egiten bada, honako emaitza lortuko dugu:

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres

Kontusailaren izena	2003. urtea		2004. urtea		2005. urtea	
	Aurrekontua	Betetakoa	Aurrekontua	Betetakoa	Aurrekontua	Betetakoa
Ikerketa eta tratamendu onkologikoaren unitatearen jarduerak	2.247.000 euro	1.137.000 euro (% 50)				
Plan onkologikoko obrak			2.542.000 euro	139.000 euro (% 25,6)		
Onkologiarako ekipamendua			1.026.000 euro	44.000 euro (% 6,76)		
Berritze teknologikoa			1.325.000 euro	0 euro (% 0)		
Plan onkologikoko obrak					2.864.200 euro	173.727 euro (% 9,41)

Hiru urteetan aurrekontuetan jasotako guztiak –10.004.200 euro–, 1.493.727 euro baizik ez dira bete; hau da, % 1,49.

Kontuan hartu behar da 2001eko plan onkologikoaren beraren arabera, Nafarroako Ospitaleko azeleragailu lineala zaharkiturik zegoela, eta ONOZeko zuzendari kudeatzailearen 1796/2001 Ebazpenaren bidez erradioterapiarako ekipamendua erosi zela, hau da, hiru azeleragailu lineal; kontuan hartu behar da, halaber, 2006an gaudela, eta honezkero Nafarroako Ospitaleko azeleragailu lineala behin eta berriz matxuratu dela. Hori guztia dela eta, hona galderak:

2.- Non daude 2001ean Varian Medical Systems Ibérica S.L.ri erositako hiru azeleragailu linealak?

2.- Adjudikazio horrek, guztira, 4.207.084 euroko kostua izan zuen. Zenbat eta zein urtetan ordaindu da?

3.- Noizko aurreikusten zen plan onkologikoan haiek instalatzea? Plan onkologikoaren kronograma nahi dugu, gobernuak 2001ean onetsitakoa.

4.- Egin al da plan horretan aldaketarik? Baiezkoan, egindako aldaketak eta haiek onetsi zireneko gobernuaren saioa ezagutu nahi ditugu.

5.- Nafarroako Parlamentuak aurrekontuetarako onetsitakoaren eta Nafarroako Gobernuak 2003., 2004. eta 2005. urteetan betetakoaren artean dagoen aldeari buruz, hona galdera:

Zein izan dira aurrekontuaren betetze txiki horren arrazoiak?

Zertarako erabili dira, azkenean, aurrekontuetan jasotako diru kopuru horiek? Aurrekontuetan egindako aldaketak ezagutu nahi ditugu.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Baluartearen sarrera nagusia ele bitan errotulatzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Baluartearen sarrera nagusia ele bitan errotulatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion.

2005eko apirilaren 13an, Eusko Alkartasunaren erabaki proposamen bat onetsi zuen Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordeak Nafarroako Gobernuak premiazko Baluarte-Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioko sarrera nagusian orduan gaztelaniaz bakarrik zegoenaren modu eta tamaina bereko errotulazioa euskaraz ere.

Gaur egun, bederatzi hilabete iragan ondoren, argi dago Nafarroako Gobernuak ez duela sarrera nagusian euskarazko errotulurik jarri. Hori guztia dela eta, hona parlamentari honen galderak:

– Zer urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak hori gauzatzeko?

– Zein fasetan daude kudeaketak?

– Nafarroako Gobernuak noizko aurreikusten du bukatuko dela legebiltzar honek onetsitakoaren araberrako errotulazioa?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Baluarteke plazako galtzadarria aldatzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Baluarteke plazako galtzadarria aldatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion.

Parlamentari honek jakin du Nafarroako Gobernuak ordainduko dituela Baluartearen

zabalgunean galtzada-harriak kendu eta beste zoladura bat jartzeko lanak, milioi bat euroko kostua izanen dutenak.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Zein dira Nafarroako Gobernuak, Baluarte Sozietate Publikoak eta Iruñeko Udalak Baluartearen plazako galtzada-harriak kentzeko sinatu duten akordioaren edukia eta norainokoa.

– Zein irizpide erabili dituzte eta nola justifikatu dute dirulaguntza ematea.

– Zer kontusailen kontura ordainduko da?

– Zein dira obrak hasteko eta bukatzeko epeak?

– Zer lan egingen dira?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Aralarko erretaula Baluartera eramateari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, Aralarko erretaula Baluartera eramateari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura eta Turismo kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak 2006. urte honetan oparitu behar digun erakustaldien denboraldi handia lehen ondorioak izaten hasia da.

Kultura eta Turismo kontseilariak bi urte eman ditu Nafarroako turismoa sustatzen eta bultzatzen maila guztietan eta foru erkidegoko lurralde osoan; horixe ondoriozta daiteke behin behin arduradunek bata bestearen ondoren eman dizkiguten prentsaurrekoetatik.

Aralarko San Miguel santutegia Nafarroan bisita gehien hartzen duen lekuetako bat da. Ez ditu Nafarroako bisitariak hartzen soilik; guregana datozen turistak ere hara joaten dira.

Kultu eta erlijio-debozioko ermita bat da, baina hara joaten dira, halaber, hango erretaula ederraren berri daukaten herritar asko. XII. mendeko urregintza pieza bat da, azken bederatzi mendetan santutegitik atera ez dena. Ez dakigu zein arrazoi izan dezakeen Kultura Departamentuak

une honetan ateratzeko, ez bada antolatzaileek uste izatea Antso Handiari eta haren ondorengoei buruzko erakusketa ez dela behar bezain erakarria izanen erretaula hori izan gabe, eta erakusketaren arrakasta bermatu nahi dutela.

San Migel Kofradiako lehendakaria eta kofradiakideak ez daude erretaula eramateko erabakiarekin, eta horren aurka azaldu dira; aldi berean, kezka erakutsi dute arte-lan hori behin eta berriz laga eta santutegia hutsik geratuko ote den.

Santutegiko arduradunak ere bere ezinegona erakutsi du egoera hau dela eta, eta Nafarroako Gobernuari eskatu dio behar diren kalte-ordainak ordain ditzan erretaula Baluartera eramateak Aralarko San Migeli ekarriko dizkion galerengatik.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

- Zein irizpide erabili ditu Kultura eta Turismo Departamentuak Aralarko erretaula Baluartera eramateko?

- Zenbat diru kostatu zaio Kultura eta Turismo Departamentuari erretaula Baluartera eramatea?

- Zenbateko kalte-ordaina eman behar die Nafarroako Gobernuari erretaulako arduradunei, bertan bizi direnei, santutegikoei nahiz ostatuko-ei?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, Bularreko Minbiziaren Antzemate Goiztiarreko Programari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIREN EGAÑA DESCARGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egindako galdera, Bularreko Minbiziaren Antzemate Goiztiarreko Programari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurra Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko Miren Egaña Descarga foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko galderak egin dizkio Osasun kontseilariari, idatziz erantzun diezazkion:

1.- Zein da, guztira, Erradiodiagnostikoko teknikari espezialisten (ETE) plantilla Bergamin kaleko Antzemate Goiztiarreko Atalaren lokaletan? Ba al

dago lanpostu hutsik? Astean zehar goizeko txandan eta arratsaldeko txandan lan egiten duten ETE-en kopurua ezagutu nahi dugu.

2.- Zein da, guztira, Bergamin kaleko Antzemate Goiztiarreko Ataleko lokaletan lan egiten duten Erradiodiagnostikoko teknikari espezialisten (ETE) plantilla? Ba al dago lanpostu hutsik? Goizeko txandan eta arratsaldeko txandan lan egiten duten ETE-en kopurua ezagutu nahi dugu.

3. Plantilla horretako langileetatik zenbat dira finkoak? Zenbat aldi baterako kontratudunak? Zer nolako kontratuak dituzte azken horiek? Aipa bitez kontratu mota horiek.

4.- Zenbait gaixo hartzen dituzte egunean? (Goiz eta arratsaldeko txandan)

5.- Lokal horietan 2005ean zehar eginiko mamografiaren kopurua ezagutu nahi dugu. Zehatz bitez goizeko txandan eta arratsaldeko txandan eginikoak.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Miren Egaña Descarga

Galdera, osasun etxeetan bertan egoteko guardiei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA SANTESTEBAN GUEL BENZU ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu andreak egindako galdera, osasun etxeetan bertan egoteko guardiei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzuek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoaren babesean, ondoko ahozko galdera aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Urtarrilaren 8an istripu tragikoa gertatu zen Larragan, non lasterkari bat hil baitzen. Gertatuta-

koak agerian utzi du beharrezkoa dela bertan egoteko guardiak bermatzea Nafarroako osasun etxe guztietan. Artaxoa, Berbintzana edo Miranda bezalako herriek aspaldian egin diote eskaria Osasun Departamentuari, uste baitute oinarritzkoa eta lehentasunezkoa dela herritarrei segurtasuna ematea, hau da, jakin dezatela larrialdi bat gertatu den guztietan laguntza emateko modua egonen dela.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauexekin jakin nahi du:

– Nafarroako zenbat osasun etxek dute bertan egoteko guardien zerbitzua?

– Zein dira osasun etxe horiek?

– Halakorik ez dagoen osasun etxeetan, aurreikusi al da bertan egoteko guardiak ezartzea? Hala bada, noiz egingen da hori?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Helena Santesteban Guelbenzu

Galdera, “En Navidad ¿quién?” izeneko kanpainari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AURELIA LUMBRERAS ÍÑIGO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Aurelia Lumbreras Íñigo andreak egindako galdera, “En Navidad ¿quién?” izeneko kanpainari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumbreras Íñigok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Orain dela gutxiko prentsaren bitartez jakin dugu beste kanpaina bat abiatu dela, “En Navidad ¿quién?” izenburupean, etxeko baterako erantzukizunari buruz.

– Zer oinarri izan ditu kanpaina horrek?

– Bukatu al da?

– Zergatik izan du hain zabalpen eskasa?

– Zenbateko kostu ekonomikoa izan du? Kontzeptuen arabera azaldua nahi dugu.

– Halaber, informazio bera behar dugu termino beretan eginiko udako kanpainari buruz, hain zuzen “Y en fiestas, ¿qué?” kanpainari buruz; esan beharra dago, halere, azken kanpaina horren zabalkundea handia izan zela.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Aurelia Lumbreras Íñigo

Galdera, NA-134 errepidetan zehar, Ebro ibaiaren ardatzean zehar, saihe- bideak egiteari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, NA-134 errepidetan zehar, Ebro ibaiaren ardatzean zehar, saihe-bideak egiteari buruzkoa. Galde-gileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamen-
tuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parla-
mentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan
José Lizarbe Baztán, Legebiltzarreko Erregela-
menduan xedatuaren babesean, ondoko galdera
aurkeztu du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio
kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Behin baino gehiagotan, komunikabideetan
Nafarroako Gobernuaren Herrilan, Garraio eta

Komunikazio Departamentuaren informazioak
agertu dira, NA-134 "Ebro ibaiaren ardatza" errepi-
deko Nafarroako zenbait herritan saihe-bideak
eginen zirela iragartzen zutenak.

Horri dagokionez, honako galderak egin nahi
ditugu:

– Zein herritan izanen du eragina?

– Zenbatekoa da saihe-bide bakoitzaren kos-
tua?

– Zein da kasuko espedientearen edo espedi-
enteen egoera?

– Zein dira egungo aurrekontuan proiektu hori-
ek ukituriko lerroak, eta zein zenbateko dute?

– Zein dira etorkizuneko aurreikuspenak, hala-
korik egotekotan?

– Zein dira saihe-bideak eraikitzeke epeak eta
datak? Noiz hasiko dira zerbitzua ematen?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Iruña-Logroño autobia eta estatuko errepideen sarea lotzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Iruña-Logroño autobia eta estatuko errepideen sarea lotzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan

José Lizarbe Baztán, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Berriki, Sustapen Ministerioarekin akordioa lortu da Iruñetik Errioxako Autonomia Erkidegoaren mugara doan autobidea lotzeko; horrek aukera emanen du gure autobia Logroñorekin eta errepideen estatuko sarearekin (N-232, A-68 eta AP-68) lotzeko, bai eta beste komunikabide batzuekin ere, Bideko autobiarri balio erantsi bat emanaz. Zein da aipatu akordio horren edukia, hitzez hitz eta bere zabaleran hartzen duen guztiari dagokionez?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Estatuko trenbideen sarearekin lankidetzan aritzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Estatuko trenbideen sarearekin lankidetzan aritzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan

José Lizarbe Baztán, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan.

– Beste autonomia erkidego batzuetan, gobernuek trenbideen estatuko sarearekin batera lan egiten dute erregio mailako edo hurbileko bidaiarien zerbitzuak mantentzeko edo handitzeko. Ba al dago halako lankidetzak hitzarmenen bat indarrean Nafarroako Gobernuaren eta Renferen artean Iruña-Altsasu-Gasteiz, Iruña-Tutera, Iruña-Zaragoza, Tutera-Zaragoza eta Logroño-Tutera ibilbideetarako?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, “Nafarroako Gobernua” izena daramaten identifikazio plakak paratzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, “Nafarroako Gobernua” izena daramaten identifikazio plakak paratzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregela-

menduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

– Nafarroako Jauregiaren sarbideetan, San Ignazio etorbidean zein Carlos III.a etorbidean, “Gobierno de Navarra” izena daramaten identifikazio plakak ezartzeko, tramitatu al zen edo aldeko txostenik lortu al zen Vianako Printzea Erakundean edo Nafarroako Gobernuko departamentu nahiz unitate administratibo eskudunean?

– Zein dira eskariaren eta erantzunaren edukia? Halaber, Iruñeko Udalaren lizentzia eta bai-mena tramitatu eta eskuratu al zen? Zein dira eskariaren eta erantzunaren edukia?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Departamentuetan I+G+Ba enpresa sarean sustatzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, Departamentuetan I+G+Ba enpresa sarean sustatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregela-menduen babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zein urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak, bere departamentuen bitartez (Hezkuntza, Komunikazio, Industria, Kultura eta Turismo, Osasun, Ingurumen, Nekazaritza), legegintzaldiaren hasieratik I+G+Ba sustatzeko gure foru erkidegoko industria bilbean?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, D ereduan curriculum-aniztasuna eskaintzeari buruzkoa.*FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, D ereduan curriculum-aniztasuna eskaintzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko Erregela-menduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zergatik ez dago curriculum dibertsifikazioko eskaintzarik D ereduko Iruñeko ikastetxe publikoetan?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, San Fermin ikastolara aldatzeagatik arartekoak eginiko gomendioei buruzkoa.*FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, San Fermin ikastolara aldatzeagatik arartekoak eginiko gomendioei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

menduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zergatik ez du Hezkuntza Departamentuak onartu Arartekoaren Erakundeak eginiko gomendioa, hain zuzen ere Daniel Diez Montosa ikaslearen familiari ordaintzekoa garraio eta jantokiko kontzeptuengatik eskatutako kopurua, ikasle hori San Fermin Ikastolara aldatu ondoren DBHko 4. mailako curriculum-dibertsifikazioa euskaraz ikasteko?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko Erregela-

Galdera, Caja Navarra fundazioarekin lankidetzaz hitzarmen bat onesteko Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiaren ahalmenari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Caja Navarra fundazioarekin lankidetzaz hitzarmen bat onesteko Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiaren ahalmenari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

2006ko urtarrilaren 18ko Nafarroako Aldizkari Ofizialak Hezkuntza kontseilariaren azaroaren 9ko

178/2005 Foru Agindua eman zuen argitara; haren bidez, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren eta Caja Navarra Fundazioaren arteko lankidetzaz hitzarmen bat sinatzeko Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiari emandako eskumena beretzat hartzen du Hezkuntza kontseilariak. Lankidetzaz hitzarmen horren helburua 2005-2006 ikasturtean Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei ethez etheko eskola-laguntza emateko programa ezartzea da.

Aipatu foru aginduan ez da azaltzen zergatik hartzen duen beretzat kontseilariak zuzendari nagusiaren eskumen arrunta den hori, nahiz eta arau orokorrean ezarrita dagoen administrazio ekintza guztiak nahitaez arrazoitu behar direla.

Hori guztia dela eta, Hezkuntza kontseilariak honako galdera honi erantzun diezaioten nahi dugu: Zergatik hartu du beretzat kontseilariak eskumen hori aipatu foru aginduaren bitartez?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Ezkaba ikastetxe publiko berria eraikitzeke obrei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Ezkaba ikastetxe publiko berria eraikitzeke obrei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Migu-

el José Izu Belloso, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Hezkuntza kontseilariak, Hezkuntza Batzordean 2004ko martxoaren 3an eginiko agerraldian, ikastetxeak eraiki, handitu edo berritzeko zenbait obra iragarri zituen. Obra horiek 2008ra arte indarrean izanen den plan zuzendari bat osatzen dute eta, ondo bidean, urtean 15 milioi euro erabiliko dira hura betetzeko.

Obra horien artean zegoen Ezkaba ikastetxe publiko berria eraikitzea, izen bereko Antsoaingo urbanizazioan; 4,3 milioi euroko inbertsioa aurreikusten zen, 2004. urtean proiektua egiteko (260.000 euro) eta 2005.etik 2007.era bitarteko urteetan obrak egiteko.

Hezkuntza kontseilariak, 2004ko abenduaren 24ko datarekin igorri zidan informazioan, 2004. urtean ikastetxeetan eginiko obrei buruzko galderari erantzuna emanez, adierazi zuen Antsoaingo obra, une hartan, udalarekin batera aukera batzuei buruz hartu beharreko erabaki baten zain zegoela. 2005eko abenduaren 22an igorritako informazioan, 2005ean eginiko obrei buruzko antzeko galdera bati erantzuna emanez, ez da obra horri buruzko inongo aipamenik egiten.

Nahi nuke, horrenbestez, Hezkuntza Departamentuak informazioa ematea aipatu espedientearen egoerari buruz, eta argitzea zergatik atzeratu den obra eta zein aurreikuspen dauzkan obrak hasteari eta bukatzeari buruz.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, Agoizko ikastetxe publikoan gela berriak eraikitzeke obrei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egindako galdera, Agoizko ikastetxe publikoan gela berriak eraikitzeke obrei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Hezkuntza kontseilariak, Hezkuntza Batzordean 2004ko martxoaren 3an eginiko agerraldian, ikastetxeak eraiki, handitu edo berritzeko zenbait

obra iragarri zituen. Obra horiek 2008ra arte indarrean izanen den plan zuzendari bat osatzen dute eta, ondo bidean, urtean 15 milioi euro erabiliko dira hura betetzeko.

Obra horien artean zegoen Agoizko Ikastetxe Publikoan gela berriak eraikitzea; 229.000 euroko kostua aurreikusi zen 2005. urterako.

Hezkuntza kontseilariak, 2004ko abenduaren 24ko datarekin igorri zidan informazioan, 2004. urtean ikastetxean eginiko obrei buruzko galderari erantzuna emanez, eta 2005eko abenduaren 22ko datarekin igorri zidan informazioan, 2005. urtean eginiko obrei buruzko antzeko beste galdera bati erantzunez, ez du obra horren aipamenik egiten.

Nahi nuke, horrenbestez, Hezkuntza Departamentuak informazioa ematea aipatu espedientearen egoerari buruz, eta argitzea zergatik atzeratu den obra eta zein aurreikuspen dauzkan obrak hasteari eta bukatzeari buruz.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, Lizarran haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko berri bat edo institutu bat eraikitzeke obrei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Lizarran haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko berri bat edo institutu bat eraikitzeke obrei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1 ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Hezkuntza kontseilariak, Hezkuntza Batzordean 2004ko martxoaren 3an eginiko agerraldian, ikastetxeak eraiki, handitu edo berritzeko zenbait obra iragarri zituen. Obra horiek 2008ra arte indarrean izanen den plan zuzendari bat osatzen dute eta, ondo bidean, urtean 15 milioi euro erabiliko dira hura betetzeko.

Obra horien artean zegoen Lizarran haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe berri bat edo beste institutu bat eraikitzea. Hauxe zen aurreikusitako egutegia: 2004an, proiektua, 250.000 euroekin; 2005ean, obrak hastea, 800.000 euroekin; 2006an, obra amaitzea, 2,4 milioi euroekin; eta 2007an, amaierako ziurtagiria, 892.000 euroekin.

Hezkuntza kontseilariak, 2004ko abenduaren 24ko datarekin igorri zidan informazioan, 2004. urtean ikastetxeetan eginiko obrei buruzko galderari erantzuna emanaz, adierazi zuen Lizarrako obra 2005eko urtarrilean hartu beharreko azken erabakiaren zain zegoela, hain zuzen ere balizko aukerei buruz egindako oinarritzko azterlan baten emaitzak neurtu behar baitziren. 2005eko abenduaren 22an igorritako informazioan, 2005ean eginiko obrei buruzko antzeko galdera bati erantzuna emanaz, ez da obra horri buruzko inongo aipamenik egiten.

Nahi nuke, horrenbestez, Hezkuntza Departamentuak informazioa ematea aipatu espedientearen egoerari buruz, eta argitzea zergatik atzeratu den obra eta zein aurreikuspen dauzkan obrak hasteari eta bukatzeari buruz.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Larragako ikastetxe publikoa handitzeko obrei eta gimnasio bat eraikitzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Larragako ikastetxe publikoa handitzeko obrei eta gimnasio bat eraikitzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1 ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Hezkuntza kontseilariak, Hezkuntza Batzordean 2004ko martxoaren 3an eginiko agerraldian, ikastetxeak eraiki, handitu edo berritzeko zenbait obra iragarri zituen. Obra horiek 2008ra arte indarrean izanen den plan zuzendari bat osatzen dute

eta, ondo bidean, urtean 15 milioi euro erabiliko dira hura betetzeko.

Obra horien artean zegoen Larragako ikastetxea handitzea eta gimnasioa egitea; guztira, 638.881 euroko inbertsioa aurreikusi zen 2004., 2005. eta 2006. urteetarako.

Hezkuntza kontseilariak, 2004ko abenduaren 24ko datarekin igorri zidan informazioan, 2004. urtean ikastetxeetan eginiko obrei buruzko galderari erantzuna emanez, adierazi zuen Larragako obrarako proiektua eginik zegoela eta udalarekin sinatu beharreko hitzarmena baizik ez zela falta.

2005eko abenduaren 22an igorritako informazioan, 2005ean eginiko obrei buruzko antzeko galdera bati erantzuna emanez, ez da obra horri buruzko inongo aipamenik egiten.

Nahi nuke, horrenbestez, Hezkuntza Departamentuak informazioa ematea aipatu espedientearen egoerari buruz, eta argitzea zergatik atzeratu den obra eta zein aurreikuspen dauzkan obrak hasteari eta bukatzeari buruz.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Otsagabiko DBHia handitzeko obrei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Otsagabiko DBHia handitzeko obrei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Hezkuntza kontseilariak, Hezkuntza Batzordean 2004ko martxoaren 3an eginiko agerraldian, ikastetxeak eraiki, handitu edo berritzeko zenbait obra iragarri zituen. Obra horiek 2008ra arte indarrean izanzen den plan zuzendari bat osatzen dute

eta, ondo bidean, urtean 15 milioi euro erabiliko dira hura betetzeko.

Obra horien artean zeuden Otsagabiko DBHia handitu eta berritzekoak; 992.200 euro zeuden ezarriak 2004an (proiektua), 2005ean (obrak has-tea) eta 2006an (obrak amaitzea) inbertsioak egiteko.

Hezkuntza kontseilariak, 2004ko abenduaren 24ko datarekin igorri zidan informazioan, 2004. urtean ikastetxeetan eginiko obrei buruzko galderari erantzuna emanez, adierazi zuen Otsagabiko obrari buruzko aukerak aztertuta zeudela jadanik. 2005eko abenduaren 22an igorritako informazioan, 2005ean eginiko obrei buruzko antzeko galdera bati erantzuna emanez, ez da obra horri buruzko inongo aipamenik egiten.

Nahi nuke, horrenbestez, Hezkuntza Departamentuak informazioa ematea aipatu espedientearen egoerari buruz, eta argitzea zergatik atzeratu den obra eta zein aurreikuspen dauzkan obrak hasteari eta bukatzeari buruz.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Patxi Larraintzar eta Ave María ikastetxe publikoak handitzeko obrei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Patxi Larraintzar eta Ave María ikastetxe publikoak handitzeko obrei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Hezkuntza kontseilariak, Hezkuntza Batzordean 2004ko martxoaren 3an eginiko agerraldian, ikastetxeak eraiki, handitu edo berritzeko zenbait obra iragarri zituen. Obra horiek 2008ra arte indarrean izanen den plan zuzendari bat osatzen dute eta, ondo bidean, urtean 15 milioi euro erabiliko dira hura betetzeko.

Obra horien artean zegoen Patxi Larraintzar eta Ave María ikastetxeak handitzeko antzeko ezaugarriak izanen zituen eraikin berri bat eraikitzea. Aurreikusitako kostua 3,3 milioikoa da, eta aurreikusita zegoen 2004an proiektua eginen zela (150.000 euro); 2005ean, 300.000 euro gastatuko ziren; 2006an, 1.785.000 euro, eta 2007an amaierako likidazioak eginen ziren (1,1 milioi).

Hezkuntza kontseilariak, 2004ko abenduaren 24ko datarekin igorri zidan informazioan, 2004. urtean ikastetxeetan eginiko obrei buruzko galderari erantzuna emanez, adierazi zuen aztergai dugun obra udalak lizentzia eman zain zegoela. 2005eko abenduaren 22an igorritako informazioan, 2005ean eginiko obrei buruzko antzeko galdera bati erantzuna emanez, ez da obra horri buruzko inongo aipamenik egiten.

Nahi nuke, horrenbestez, Hezkuntza Departamentuak informazioa ematea aipatu espedientearen egoerari buruz, eta argitzea zergatik atzeratu den obra eta zein aurreikuspen dauzkan obrak hasteari eta bukatzeari buruz.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Oteitzako ikastetxe publikoa handitzeko obrei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Oteitzako ikastetxe publikoa handitzeko obrei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Hezkuntza kontseilariak, Hezkuntza Batzordean 2004ko martxoaren 3an eginiko agerraldian, ikastetxeak eraiki, handitu edo berritzeko zenbait obra iragarri zituen. Obra horiek 2008ra arte indarrean izanen den plan zuzendari bat osatzen dute eta, ondo bidean, urtean 15 milioi euro erabiliko dira hura betetzeko.

Obra horien artean zegoen Oteitzako ikastetxea handitzea, eta esaten zen 2003ko lehiaketa eman gabe geratu ondoren, beste lehiaketa bat eginen zela eta obrak 2004an eginen zirela, 120.000 eurotan.

Hezkuntza kontseilariak, 2004ko abenduaren 24ko datarekin igorri zidan informazioan, 2004. urtean ikastetxeetan eginiko obrei buruzko galderari erantzuna emanez, adierazi zuen Oteitzako obra, 2004an eman gabe geratu ondoren, udalak erabakia eman zain zegoela, tartean hirigintza arazo batzuk zeudelako. 2005eko abenduaren

22an igorritako informazioan, 2005ean eginiko obrei buruzko antzeko galdera bati erantzuna emanez, ez da obra horri buruzko inongo aipamenik egiten.

Nahi nuke, horrenbestez, Hezkuntza Departamentuak informazioa ematea aipatu espedientearen egoerari buruz, eta argitzea zergatik atzeratu den obra eta zein aurreikuspen dauzkan obrak hasteari eta bukatzeari buruz.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, Donibane BHIan zurgintzako nabe bat eraikitzeke obrei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egindako galdera, Donibane BHIan zurgintzako nabe bat eraikitzeke obrei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Hezkuntza kontseilariak, Hezkuntza Batzordean 2004ko martxoaren 3an eginiko agerraldian, ikastetxeak eraiki, handitu edo berritzeko zenbait obra iragarri zituen. Obra horiek 2008ra arte inda-

rrean izanen den plan zuzendari bat osatzen dute eta, ondo bidean, urtean 15 milioi euro erabiliko dira hura betetzeko.

Obra horien artean zegoen Iruñeko Donibane BHIan zurgintzako nabe bat eraikitzekeoa; 1,6 milioi euroko gastua aurreikusi zen, 2004an eta 2005ean eginen zena.

Hezkuntza kontseilariak, 2004ko abenduaren 24ko datarekin igorri zidan informazioan, 2004. urtean ikastetxeetan eginiko obrei buruzko galderari erantzuna emanez, adierazi zuen aztergai dugun obra egiteko udalak plan partzialaren aldaketa onestea falta zela. 2005eko abenduaren 22an igorritako informazioan, 2005ean eginiko obrei buruzko antzeko galdera bati erantzuna emanez, ez da obra horri buruzko inongo aipamenik egiten.

Nahi nuke, horrenbestez, Hezkuntza Departamentuak informazioa ematea aipatu espedientearen egoerari buruz, eta argitzea zergatik atzeratu den obra eta zein aurreikuspen dauzkan obrak hasteari eta bukatzeari buruz.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, Tuterako Valle del Ebro BHIa handitzeko obrei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok egindako galdera, Tuterako Valle del Ebro BHIa handitzeko obrei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Hezkuntza kontseilariak, Hezkuntza Batzordean 2004ko martxoaren 3an eginiko agerraldian, ikastetxeak eraiki, handitu edo berritzeko zenbait obra iragarri zituen. Obra horiek 2008ra arte indarrean izanen den plan zuzendari bat osatzen dute

eta, ondo bidean, urtean 15 milioi euro erabiliko dira hura betetzeko.

Obra horien artean zegoen Tuterako Valle del Ebro BHI handitzekoa; 1,2 milioiko kostua aurreikusitako zen 2004. eta 2005. urteetarako.

Hezkuntza kontseilariak, 2004ko abenduaren 24ko datarekin igorri zidan informazioan, 2004. urtean ikastetxeetan eginiko obrei buruzko galderari erantzuna emanez, adierazi zuen aztergai dugun obra egiteko udalak plan partzialaren aldaketa onestea falta zela. 2005eko abenduaren 22an igorritako informazioan, 2005ean eginiko obrei buruzko antzeko galdera bati erantzuna emanez, ez da obra horri buruzko inongo aipamenik egiten.

Nahi nuke, horrenbestez, Hezkuntza Departamentuak informazioa ematea aipatu espedientearen egoerari buruz, eta argitzea zergatik atzeratu den obra eta zein aurreikuspen dauzkan obrak hasteari eta bukatzeari buruz.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Bellosok

Galdera, Zizur Nagusian ikastetxe publiko berria eraikitzeke obrei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok egindako galdera, Zizur Nagusian ikastetxe publiko berria eraikitzeke obrei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel

el José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Hezkuntza kontseilariak, Hezkuntza Batzordean 2004ko martxoaren 3an eginiko agerraldian, ikastetxeak eraiki, handitu edo berritzeko zenbait obra iragarri zituen. Obra horiek 2008ra arte indarrean izanen den plan zuzendari bat osatzen dute eta, ondo bidean, urtean 15 milioi euro erabiliko dira hura betetzeko.

Obra horien artean zegoen Zizur Nagusian hiru lerroko ikastetxe berria eraikitzea, bi solairurekin eta kiroldegi batekin; 4,5 milioi euroko aurrekontua zegoen eta betetzeko epea 2004tik 2007ra bitartekoa zen.

Hezkuntza kontseilariak, 2004ko abenduaren 24ko datarekin igorri zidan informazioan, 2004. urtean ikastetxeetan eginiko obrei buruzko galderari erantzuna emanez, adierazi zuen aztergai dugun obra udalak lizentzia eman zain zegoela. 2005eko abenduaren 22an igorritako informazioan, 2005ean eginiko obrei buruzko antzeko galdera bati erantzuna emanez, ez da obra horri buruzko inongo aipamenik egiten.

Nahi nuke, horrenbestez, Hezkuntza Departamentuak informazioa ematea aipatu espedientearen egoerari buruz, eta argitzea zergatik atzeratu den obra eta zein aurreikuspen dauzkan obrak hasteari eta bukatzeari buruz.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, kirol proba bat egiten ari zen bitartean Larragan lasterkari bat hil izanari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, kirol proba bat egiten ari zen bitartean Larragan lasterkari bat hil izanari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Joan den urtarrilaren 5ean, igandez, "Erregetako XIX. krosa" Larragan egiten ari zela, lasterkari bat hilik suertatu zen Larragako osasun etxetik 300 metrotara. Osasun etxea itxirik zegoen, eta halaxe egoten da egunero arratsaldeko hiruretatik aurrera eta asteburu guztietan. Hala izaten da Nafarroako Gobernuak behin eta berriz ezezkoa eman diolako arratsaldeetan eta asteburuetan bertan egoteko guardiak ezartzeari, Nafarroako gainerako lekuetan egiten den bezala, nahiz eta udal ordezkariak hala eskatu.

Datu horiek kontuan harturik eta Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza eta Osasun departamentuek eta Nafarroako Gobernuko eledun Catalán jaunak eginiko adierazpenak ikusita, zeinak

esan baitzuen "laguntza berehalakoa eta zuzena izan zela giza baliabideen aldetik eta baliabide teknikoaren aldetik" eta udalak lasterketarako kontratatu zuen anbulantziak "ez zuela lekualdatzeetarako exijitu daitekeen gutxienezko hornikuntzarik", ondoko galderak egin nahi dizkiot kontseilariari, horrelakorik berriz gerta ez dadin.

1.- Nori dagokio baimena ematea anbulantziek osasun garraioa egin ahal izan dezaten?

2.- Nori dagokio anbulantzien osasun ikuska-penak egitea indarra duten arauen arabera baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko?

3.- Ba al zuen udalak kontraturiko anbulantziak behar zen baimena osasun garraioaren zerbitzua egiteko?

4.- Zer kontrol egin zitzaion lasterketan egon behar zuen anbulantziari?

5.- Zein legezko baldintza bete behar ditu udal batek aipatutakoa bezalako kirol proba bat antolatzeko? Kasua bada, dena zuzen bete al zuen Larragako Udalak?

6.- Nola liteke Nafarroako Gobernuko eledunak esatea udalak hutsak zituen anbulantzia bat kontratatu zuela?

7.- Zuzen funtzionatu al zuen guardian zeuden osasun langileek eramandako desfibrilazio-monitore eramangarriak?

8.- Adituen irizpidea eta iritzia da honelakoetan funtsezkoa dela berehala jardutea pertsona baten bizitza berreskuratzeko, eta garrantzitsua dela bizkortze unean desfibriladore bat izatea; jakina zen etxea itxita zegoela oinarrizko eskualde horretako guardiak, inork ez daki zergatik, lokalizatuak direlako. Aurrekoak kontuan hartuta, zergatik itxaron

zen hainbeste denbora anbulantzia medikalizatua iritsi arte, hura topatzera irten beharrean, denbora irabazteko?

9.- Urrunago egonda, zergatik joan zen Iruñeko anbulantzia medikalizatua, Lizarrakoa joan beha-

rrean, istripua gertatu zen lekura iristeko denbora gehiago behar bazuen?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Larragan lasterkari bat hil izanarekin lotutako zenbait jarduketari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, Larragan lasterkari bat hil izanarekin lotutako zenbait jarduketari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan.

Joan den urtarrilaren 5ean, igandez, "Erregetako XIX. krosa" Larragan egiten ari zela, lasterkari bat hilik suertatu zen Larragako osasun etxetik 300 metrora. Osasun etxea itxirik zegoen, eta halaxe egoten da egunero arratsaldeko hiruetatik aurrera eta asteburu guztietan. Hala izaten da Nafarroako Gobernuak behin eta berriz ezezkua eman diolako arratsaldeetan eta asteburuetan bertan egoteko guardiak ezartzeari, Nafarroako gainerako lekuetan egiten den bezala, nahiz eta udal ordezkariak hala eskatu.

Datu horiek kontuan harturik eta Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza eta Osasun departamentuek eta Nafarroako Gobernuko eledun Catalán jaunak eginiko adierazpenak ikusita, zeinak esan baitzuen laguntza zuzena izan zela eta funtzionamendua egokia, ondoko galderak egin nahi ditut, horrelakorik berriz gerta ez dadin.

1.- Zer ordutan jaso zuen abisua SOS Nafarroak?

2.- Zer bitarteko eraman zituen gertaerako lekura?

3.- Zein udalerritan zeuden Larragara joan ziren guardiako sendagilea eta OLTa?

4.- Zenbat denbora behar izan zuen anbulantzia medikalizatuak gertaerako lekura iristeko?

5.- Zein anbulantzia bidali zuen SOS Nafarroak eta zergatik?

6.- Gertatutakoaren ondoren, zer balorazio egin du Gobernuak gertatu zenari buruz?

7.- Uste al du Nafarroako Gobernuak laguntza hobe emanen zela osasun etxea irekita egon izan balitz edo anbulantzia medikalizatua hurbilago egon izan balitz?

8.- Zein dira gertaeraren ondorioak? Horren arabera, aldatuko al duzue Artaxoako oinarrizko eskualdearen osasun egoera? Erantzunean arrazoiak ematea nahi dugu.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, Gares aldeko uretan farmakoak agertu izanari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Gares aldeko uretan farmakoak agertu izanari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Ikerketa zientifiko batek 20 medikamenturen presentzia detektatu du Ebroko uretan. Analgesikoak, hantura kontrakoak, antidepresiboak, antibiotikoak edo antihistaminikoak ibaian behera joaten dira arrainetan eta bestelako ur organismoetan

eragin kaltegarriak sorrarazterainoko kontzentrazioetan, zeren eta hondakinen araztegiak ez baitaude prestaturik substantzia horiek tratatzeko.

Ebro ibaian barna ezarritako laginketa estazioek erakusten dute Espainiako kutsadura adierazle handienak Huerva ibaian, Gallego ibaian, Pinako presan eta Garesen daudela. Azken horretan medikamentu psikiatrikoen kontzentrazio handiak ematen dira.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Zer eragin izan ditzaketen medikamentuen kontzentrazio horiek eskualdeko biodibertsitatean?

– Kontrolatuta al du Nafarroako Gobernuak bertako faunan eragina duen egoera hori?

– Nola egingen dio aurre arazoari?

– Ba al du egoera horrek arriskurik herritarrentzat? Horri buruz dauden txostenak nahi genituzke.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena ospatzeko gastuei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena ospatzeko gastuei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura eta Turismo kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Komunikabideen bitartez datu batzuk ezagutu ditugu Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena

ospatzeko urtarrilaren 26an Nafarroako Gobernuak abian jarri nahi dituen jarduketei buruz.

“Erresuma baten Aroa, Antso Handia eta bere leinua. Koroaren eta Iruñeko elizbarrutiaren bidegurutzak” erakusketa antolatu dute Nafarroako Gobernuak, Iruña eta Tuterako Artxidiozesiak eta Caja Navarra Fundazioak.

Bi gauza egin zaizkigu deigarri: jardueren programa dela-eta erabiltzen ari diren kopuruak eta Baluarteen erakusketa hori bisitatu nahi duten pertsonen ordaindu beharreko sarreren prezioa.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

- Pentsatua al du Nafarroako Gobernuak 12.500.000 euro gastatzea Frantzisko Xabierren V. Mendeurrena ospatzeko diseinatutako jardueren programan?

- Zenbat diru jarri behar dute Iruña eta Tuterako Artzapezpikutzak eta Caja Navarra Fundazioak programa aurrera eramateko?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena ospatzeko Espainiako Gobernuari eskatutako laguntzari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena ospatzeko Espainiako Gobernuari eskatutako laguntzari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura eta Turismo kontseilariak idatziz erantzun dezan.

José Luis Rodríguez Zapateroren gobernuak iragarria du bereziki lagundu behar dituela foru gobernuak Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekimenak, eta, aldi berean, ofizialki berretsi du mendeurren horri garrantzi berezia eta apartekoa emateko borondate politikoa.

Gobernu zentralak Fernando García de Cortázar Ruiz de Aguirre irakaslea izendatu zuen 2004an mendeurrenerako komisario gisa eta eginkizun exekutiboa NLEAri (Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia) esleitu zion. Bestalde, aholku emateko kontseilu bat sortu zen parte hartzen zuten erakundeek programaturiko jarduketak koordinatzeko ardura izateko.

Zehazki, gobernu zentralak berariaz seinalatu zuen bere erantzun ofizialean erabakia zuela besteak beste honako jardueretarako laguntza ekonomikoa ematea NLEAren bidez: “El mundo alrededor de Javier”, Nafarroan 2006ko martxotik apirilera eginen dena; Nafar bat daimioen lurraldean. Frantziako Xabierkoaren legatua Japonian” dokumentala; eta RTVEren Orkestraren kontzertu bat Frantziako Jatsuko auditorioan, Xabierren.”

Espainiako Gobernuak, NLEAren bitartez, parte hartuko du, halaber, “Europaren laguntza giza garapenerako” jardunaldien finantzaketan. Jesusen Lagundiaren menpeko Alboan GKEak antolatuko du.

Gainera, beste kongresu batzuk antolatuko dira santuaren irudiari buruz, Nafarroan eta beste leku batzuetan –Mexikon, Goan eta Tokion–, eta NLEAren eta Espainiak herrialde haietan dituen enbaxaden laguntza izanen dute. Halaber, Asiako Etxeak sustaturiko erlijio-topaketa bat ere antolatuko da.

Era berean, Kultur Ospakizunen Estatuko Elkarteak “Asiako ibilbideak” izenburupeko kongresu

bat antolatzen ari da, espainiarrek Asian eginkizun espedizio eta aurkikuntzei buruzkoa, non Frantziako Xabierkoari arreta berezia eskainiko zaion.

Ekimen horiek eta ospakizunaren eremuan sartzen diren beste batzuek ere Estatuko administrazio zentralakoak diren edo haren menpean dauden beste erakunde batzuen laguntza izanen dute: Kultura Ministerioa, Asiako Etxea edo Kultur Ospakizunen Estatuko Elkarteak.

Espainiako Gobernuak, Portugalen duen enbaxadorearen bitartez, laguntza aktiboa ematen dio Frantziako Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren ospakizunetarako komisario portugaldar Natalia Correira Guedesi. Eta Japoniaren kasuan, hartu-emanak izan ziren herrialde horrek Espainian dituen enbaxadako diplomatikoen eta NLEAko funtzionarioen artean, bai eta Tokioko Sofia Unibertsitatearekin ere.

Zail gertatzen zaigu ulertzea Kultura eta Turismo Departamentuaren tema, adierazia baitu nazioko gobernuak ez diola laguntzarik ematen foru gobernuari Frantziako Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

- Zer laguntza eskatu dio foru gobernuak nazioko gobernuari Frantziako Xabierkoaren V. mendeurrena ospatzeko?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, Elgorriagako bainuetxeko obrei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIREN EGAÑA DESCARGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egindako galdera, Elgorriagako bainuetxeko obrei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Miren Egaña Descargak, Aralar parlamentu-taldeko kideak, Erregelamenduan xedatutakoari jarraikiz, ondoko galderak egin ditu Kultura eta Turismo kontseilariak erantzun diezazkion:

Kontuan izanda Elgorriagako bainuetxeko obrei buruz Diario de Navarra (2006-01-20) agerturiko informazioak eta herriko alkate Galarregui jaunaren deklarazioak:

1.- Egin ote zen lurzoru motari buruzko industrietan bat bainuetxearen hasierako proiektua idatzi aurretik?

2.- Zein administrazio-tramite erabili du Nafarroako Gobernuak proiektua aldatzeko?

3.- Zein da Nafarroako Gobernuaren 2004ko abuztuaren 30eko erabakian agertzen diren 2004 eta 2005eko gastuen aurrekontuko kontusailen betetze egoera, kontuan izanda erabaki haren bidez dirulaguntza eman zitzaiola Elgorriagako Udalari?

4.- Proiektuaren aldaketak, egunkarietan azaldu zenak, zer eragin izanen du 2006ko gastuen aurrekontuko dagokion kontusailaren kargura 600.000 euroko dirulaguntza ematerakoan?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Miren Egaña Descarga

Galdera, Arginaritzen itxitako zaborteziaren egoerari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARIANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, Arginaritzen itxitako zaborteziaren egoerari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras andreak Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko.

Joan den udan, Argiñaritz herriaren ondoan, Nafarroan izan diren sute handienetako bat gertatu zen. Nafarroako Gobernu Ingurumen eta Barne Departamentuaren arabera, 300 hektarea baino gehiago erre ziren.

Suteak eragina izan zuenez Argiñaritzko zabortezi itxiaren inguruan, herri hartako 21 bizilagunek beren etxeetatik atera behar izan zuten.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

1. Zein da aipatu zaborteziaren egungo egoera?

2. Zer kontrol egiten ditu foru gobernuak zabortezi horren segurtasuna eta haren ingurumen kontrola bermatzeko?

3. Zer arrisku zegoen suhiltzaileek arreta berezia jarri behar izateko sua ez zedin zabortezi hartara iritsi, horrek izan zitzakeen ondorioengatik?

4. Ba al dago zabortezi horretan gas-poltsen edo bestelako arriskurik, Argiñaritzko bizilagunei edo ingurumenari kaltea egin diezaiekeenik?

5. Zein neurri hartu dituzte edo/eta hartu behar dituzte administrazio publikoek zabortezi horren segurtasuna eta ingurumen kontrola bermatzeko?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Azagrako saihebidia eraikitzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, Azagrako saihebidia eraikitzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras andreak Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko.

Nafarroako Gobernuak udalez gaindiko proiektu sektorial deklaratu du Azagrako saihebideari

buruzko informazio azterlana, eta horrekin administrazio prozeduraren lehen urratsa onetsi du.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

1. Nafarroako Gobernuak erabakita baldin badu Azagrako saihebidia eraikitzea, zein epetan egingen da eta zein fasetan dago obra hori?

2. Nondik nora doa foru gobernuak proposaturiko trazadura?

3. Baloratu al dira aukeran izan daitezkeen beste trazadura batzuk? Zein dira eta zergatik utzi dira alde batera?

4. Baldin eta exekutiboak hartu-emanak izan baditu Azagrako Udalarekin egin beharreko trazadurari buruz, zer balorazio egiten du topaketa horiei buruz?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Berriozarko Mendialdea ikastetxean izandako gertakariari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Berriozarko Mendialdea ikastetxean izandako gertakariari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako galdera hau

egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion.

Joan den urriaren 11n, Berriozarko Mendialdea ikastetxean gertaera larria izan zen, ikasle baten aitak irakasle bati eraso egin baitzion alaba besotik hartu zuelako ikasgelara sarrarazteagatik. Hauxe jakin nahi dut:

– Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak neurriren bat honelako egoerarako?

– Aztergai dugun kasuan, zein neurri hartu ditu egoerari konponbidea emateko?

– Ba al du Hezkuntza Departamentuak halakotan jarduteko protokoloren bat? Hala ez bada, ez ote litzateke komenigarria protokolo bat egitea?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 25ean.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Foru Komunitateko gizon eta emakumeek deklaraturako urteko batez besteko soldatari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELMA SÁIZ DELGADO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egindako galdera, Foru Komunitateko gizon eta emakumeek deklaraturako urteko batez besteko soldatari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Elma

Saiz Delgadok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ekonomi eta Ogasun kontseilariak idatziz erantzun dezan.

a) Zein izan zen foru komunitateko gizonen deklaraturako urteko batez besteko soldata 2004an?

b) Zein izan zen foru komunitateko emakumeen deklaraturako urteko batez besteko soldata 2004an?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, soldatako langileak dituzten autonomoen ehunekoari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELMA SAIZ DELGADO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak egindako galdera, soldatako langileak dituzten autonomoen ehunekoari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Elma Saiz Delgadok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak idatziz erantzun dezan.

a) Zein da Nafarroan soldatako langileak dituzten autonomoen ehunekoa –2. mailara arteko senideak barne–, Nafarroan guztira zentsatuta dagoen kolektiboa kontuan hartuta?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, 2003, 2004 eta 2005ean erregistratutako patenteei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELMA SAIZ DELGADO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak egindako galdera, 2003, 2004 eta 2005ean erregistratutako patenteei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Elma Saiz Delgadok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak idatziz erantzun dezan.

a) Zein da 2003., 2004. eta 2005. urteetan Nafarroan erregistraturiko patenteen kopurua, bilakaera eta sektoreak?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, “La Edad de un Reyno, Sancho El Mayor y su linaje” izeneko erakustekari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egindako galdera, “La Edad de un Reyno, Sancho El Mayor y su linaje” izeneko erakustekari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Joan den urtarrilaren 25ean, “Erresuma baten Aroa. Antso Handia eta bere leinua” erakusketa inauguratu zen. Nafarroako Gobernuaren menpekoa den Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbaziorako Funtzioak antolatua da erakusketa.

Urteko kultur ekitaldirik garrantzitsuena dela esan izan dute aurkezterakoan, eta Nafarroa eta

haren historia gure mugetatik kanpo ezagutzera emateko tresna bat izan nahi duela. 48 museo, artxibo eta elizetatik heldu diren 270 obra daude ikusgai.

IUN-NEB parlamentu taldeak jakin du Kultura eta Turismo Departamentuak, Nafarroatik kanpoko proiektio hori lantzeko, estatuko komunikabide garrantzitsu batzuetako kazetari talde baten bidaia eta egonaldia ordaindu zituela.

Hartara, hamabi profesional inguruko talde hori Nafarroan zegoen urtarrilaren 24an, asteartez, egun horretan arratsaldeko bostetan pase pribatu batera joan zitezten, hain zuen ere inaugurazio ofiziala izan aurretik.

Pase pribatu horren helburua zen komunikabide garrantzitsu horiek inaugurazioaren egun berean, urtarrilaren 25ean, erakusketaren edukiak eta haren garrantziaren berri ematea.

Hala eta guztiz ere, zer edo zer gertatu zen aurreikuspen hori galarazi zuena; izan ere, kazetari horien bisita, urtarrilaren 24ko arratsaldeko bostetarako programatuta zegoena, bertan behera geratu zen, eta ezin izan zen beste ordu batean egin. Horrekin, aukera galdu zen estatuko prentsan inaugurazio ofizialaren egun berean, biharamunean, erakusketaren berri emateko.

Dirudienez, arrazoi soil eta azaltzen zail bat zegoen gertatutakoa gertatzeko: erakusketa ez zegoen bisitatzeko edo ikusteko moduan. Departamentuak, ondoren, kazetariak Artxibo Nagusia eta Jorge Oteizaren Museo-Etxea bisitatzera eraman zituen, eta gero, kontseilariarekin joan ziren Iruñeko jatetxe ezagun batean afaltzera.

Hartara, erakusketa prestatzean, ulertezina geratzen zaigun narraskeria edo utzikeria baten ondorioz, aukera galdu zen erakusketaren eta Nafarroaren kanpoko proiektio garrantzitsu hori lortzeko.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

– Zenbat kazetari eta zein komunikabidetakoak gonbidatu zituen departamentuak, edo beste edo-

zein fundazio edo tresna-sozietatek, urtarrilaren 24ko paserako?

– Zergatik geratu zen bertan behera urtarrilaren 24ko pasea?

– Zenbateko kostua izan du kazetari horiek Nafarroara ekartzeak, bidaiak, egonaldiak, bazkariak, afariak...?

– Departamentuak ardurak eskatu ditu edo eskatuko al ditu 24ko bisita bertan behera utzi izateagatik?

– Nork du erakusketa bertan behera utzi izanaren erantzukizuna?

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, 2006an zehar foru lege proiektuak igortzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, 2006an zehar foru lege proiektuak igortzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak, parlamentari honek egindako ahozko galdera bati erantzunez, Gobernuak legegintzaldi honetan igorri nahi dituen foru lege proiektuei buruz informatu zuen Nafarroako Parlamentuak 2004ko urriaren 14an egin zuen Osoko Bilkuran.

Aurrerago, nik egindako galdera bati 2005eko martxoaren 2an emaniko erantzun batez, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak

2005erako programa horren aldaketen berri eman zuen.

Legegintzaldi honen ia azken urtean sarturik gaudela, ikus daiteke gobernuak 2005eko lehen bilkuraldirako iragarritako foru lege proiektuetatik ondokoak ez zaizkiola Parlamentuari igorri:

– Ondareari buruzko Foru Legea.

– Nafarroako Foru Komunitateko laguntza juridikoari buruzko Foru Legea.

Ez dira igorri, ezta ere, 2005eko bigarren bilkuraldirako iragarritako ondoko proiektuetatik bakarra ere:

– Aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko Foru Legea.

– Nafarroako Parlamenturako hauteskunderi buruzko Foru Legea.

– Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari buruzko Foru Legea.

– Landareen osasunari buruzko Foru Legea.

– Jokoari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Legea.

– Aurrekontuei buruzko Foru Lege Orokorra.

– Nafarroako oihan ondarea babesteari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Legea.

– Ezagutza zientifiko eta teknologikoari eta ikerkuntzari buruzko Foru Legea.

– Museoei buruzko Foru Legea.

– Gizarte zerbitzuen alorreko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko Foru Legea.

– Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legea.

Bestalde, 2006an zehar, ondoko proiektuak igortzea aurreikusi da:

– Artxiboei buruzko Foru Legea.

– Errepideei buruzko Foru Legea.

– Ikuskizun publikoei eta josteta jardueri buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Legea.

– Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

– Naturguneei buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Legea.

Hori dela eta, kontuan hartuta legegintzaldi honetan bilkurak egiteko geratzen den denbora mugatua dela, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 2006an igorri nahi dituen foru lege proiektuei buruzko informazioa jaso nahi dugu; jakin nahi dugu zertan den aipatu proiektuetako bakoitza, hala hasiera batean 2005ean igortzekoak zirenak nola aurten igortzekoak zirenak, eta orobat jakin nahi dugu gaur egun zein datatan pentsatzen duzuen onetsi eta igorriko direla Legebiltzarrera.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

2/2005 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 26koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 2/2005 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 26koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 158. artikulua, ERA-BAKI DA:

1. 2/2005 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 26koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, ezagutzen duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

2/2005 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 26koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoko 32. artikuluan xedaturikoarekin bat, Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko, Nafarroak unean-unean Estatuko lurraldean indarra duten oinarritzko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak ibiliko ditu. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak adierazpena egin eta dirua paga-

tzeko ereduak onesten ahalko ditu. Eredu horiek, gutxienez ere, araubide arrunteko lurraldeko datu berak edukiko dituzte eta likidazioaldi bakoitzera-ko pagatzeko epeak adieraziko dituzte, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetik sobera bereiziko ez direnak.

Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 54. artikuluko 1. idatz-zatian xedatzen du, Hitzarmen Ekonomikoarekin bat, araubide arrunteko lurraldeko tributu araubidearen aldaketa batek unean-unean Estatuan indarra duten funtsezko arau eta formal berak Foru Komunitatean ezartzea behartzen duenean, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak haren esku utzirik, tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru legeen mailako arauak ematen ahalko dituela.

Berriki, azaroaren 18ko 22/2005 eta 23/2005 legeek, beste zerga batzuen gaineko arauak aldatzeaz gain, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruz Estatuan indarra dutenak aldatu dituzte.

Azaroaren 18ko 22/2005 legearen xedea da Kontseiluak 2003ko urriaren 7an emandako 2003/92/EE Zuzentaraua, beste batzuekin batera, Espainiako legeriari eratzikitzea. Zuzentzarau horren bitartez 77/388/EEE Zuzentaraua aldatu zen gasaren eta argindarraren hornidura tokiaren gaineko arauari dagokienez.

Aipatutako 2003/92/EE Zuzentzarau horren ondorioz berrikusi egin dira gasaren eta argindarraren horniduraren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainketa Europar Batasunean erregulatu dituzten arauak, sektore horretan dagoen liberalizazio gero eta handiagoaren esparruan.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga gasaren eta argindarraren barneko salmentari trabarik gabe aplikatzeko, beharrezkoa birsaltzaileei gasa eta argindarra ematea beren jarduera nahiz egoitza iraunkorra duten tokian, edo, horrelakorik ez

badago, beren helbidean, betiere hornidura toki horietatik kontratatu baldin bada.

Gasaren eta argindarraren kontsumo fasean, dagozkion emateak produktu horiek kontsumitzen diren tokian egindakotzat hartuko dira, eta kontsumo-tokitzat joko da erositako gasa eta argindarra neurtzeko erabiltzen den kontagailua dagoen tokia.

Aipatu berri den aldaketa hori beste batekin osatu behar da, alegia, subjektu pasiboa inbertitzeko mekanismoaren aplikazioarekin, eta halaxe eginen da gasaren edo argindarraren hornitzaileak zergaren aplikazio eremuan egoitzarik ez badu eta bezeroa lurralde horretan identifikatua bada. Ildo horretan aldatu da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 31. artikulua.

31. artikulua aldaketa horretaz gain, Nafarroan Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen foru legeak aldaketa gehiago izan ditu 9., 13. eta 38. artikuluetan, egokitzapen tekniko batzuk sartu baitira gasaren eta argindarraren gaineko eragiketetan zergaren funtzionamendu egoia bermatzeko.

Bestalde, produktibitatea bultzatzeko zergak aldatzeko azaroaren 18ko 23/2005 Legeak bi aldaketa egin zizkion Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko araudiari, eta aldaketa horiexek egin behar zaizkio abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeari ere. Lehenbiziko aldaketa 19/1992 Foru Legearen 17. artikuluari egin zaio. Artikulu horren arabera, posta zerbitzu publikoentzat aurreikusitako salbuespenaren ondorioz, gaur egun, eragile pribatuak salbuespen horretatik at gelditzen dira, zerbitzu berberak ematen badituzte ere. Desberdintasun hori eta horren ondoriozko kalteak zuzentzeko, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera, salbuespena aplikatuko zaie, bakar-bakarrik, guztiendako posta zerbitzua osatuz, emateko ardua esleitua duten eragileentzat erreserbatuak dauden zerbitzu-emate eta ondasun-emate osagarriei, guztiendako posta zerbitzuari eta posta zerbitzuak liberalizatzeari buruzko uztailaren 13ko 24/1998 Legearekin batera.

Bestalde, aldatu egin da etxebizitzaren errentamenduan aritzen diren entitateek eskuratutako etxebizitzari ehuneko 4ko tasa aplikatzeko aginduren testua, araubide orokorreko sozietateen gaineko zergaren araudian araubide berezi horri egin zaion aldaketarekin bat etortzeko. Aldaketa horrek Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 37. artikuluan du eragina.

Hori dela-eta, beharrezkoa da, esan bezala Parlamentuak esku utzirik, tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu baten bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak ematea, abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeko 54. artikuluko 1. idatz-zatia-rekin bat.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek atzerako eragina izanen du, haren ondorioak harmonizatu beharreko araubide arrunteko arauenekin bat etor daitezten.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2005eko abenduaren 26ko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz,

DEKRETATU DU:

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko artikulua batzuk aldatu dira, ondoren azaldu bezala:

Bat. 9.3 artikuluari h) letra eransten zaio eta artikulua beraren azken lerroaldea aldatzen da.

“h) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide arrunta arautzen duen Legearen 68. artikulua-zazpigarren idatz-zatiaren arabera, Europar Batasuneko beste estatu kide batean egindakotzat hartuko liratekeen gas-emateak (gas naturala banatzeko sistemaren bidezkoak) nahiz argindar-emateak.”

“Aurreko a)tik h)ra bitarteko letretan aipatutako salbuespenak baliorik gabe geldituko dira haiek izateko baldintzetako edozein betetzen ez bada.”

Bi. 13. 1 artikuluari f) letra gehitzen zaio.

“f) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide arrunta arautzen duen Legearen 68. artikulua-zazpigarren idatz-zatiaren arabera, zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat hartuko liratekeen gas-emateak (gas naturala banatzeko sistemaren bidezkoak) nahiz argindar-emateei dagozkien ondasun-eskurapenak.”

Hiru. 17.1 artikulua 21. zenbakia aldatzen da.

“21. Guztiendako posta zerbitzua osatuz, emateko ardua esleitua duten eragileentzat erreserbatuak dauden zerbitzu-emateei eta ondasun-emate osagarriei, guztiendako posta zerbitzuari eta posta zerbitzuak liberalizatzeari buruzko uztailaren 13ko 24/1998 Legearekin batera.”

Lau. 31.1 artikuluari 4. zenbakia gehitzen zaio.

“4. Aurreko zenbakietan ezarritakoa deusetan galarazi gabe, enpresaburu eta profesionalak, hala nola enpresaburu edo profesional gisa aritzen ez diren pertsona juridikoak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide arrunta arautzen duen Legearen 68. artikulua zazpigarren idatz-zatiaren arabera, zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat hartzen diren gasaren eta argindararen emateak jasotzen badituzte, betiere ematea lurralde horretan finkagunerik ez duen enpresaburu edo profesional batek egiten badu eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari begira Espainiako administrazioak esleitu dion identifikazio zenbakia jakinarazi bazaio.”

Bost. 37.bi.1 artikuluko 6. zenbakia aldatzen da.

“6. Administrazioak babes ofizialeko araubide bereziko edo sustapen publikoko etxebizitza gisa kalifikatutakoak, emateak haien sustatzaileek egiten badituzte, eraikin berean izanik haiekin batera eskualdatzen diren garaje eta lokal erantsiak barne. Ondorio horietarako, garaje plazak ez dira bi baino gehiago izanen.

Martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Araubide Bereziko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen Testu Bateginaren VII. tituluaren III. kapituluaren nahiz Sozietateen gaineko zergari buruzko aben-

duaren 30eko 24/1996 Foru Legearen X. tituluko V. kapituluaren aurreikusitako araubide berezia aplikatzen duten entitateek eskuratutako etxebizitzak, baldin eta ondorengo errentamenduak sortutako errentei aplikatzen ahal bazaie, hurrenez hurren, aipatutako testu bateginaren 54.1 artikuluan edo aipatutako foru legearen 109. quinquies artikulua 1. idatz-zatiko b) letran ezarritako hoberia.

Ondorio horrekin, inguruabar horren berri emanen dio entitate erosleak subjektu pasiboari eragiketa egin aurretik, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan.”

Sei. 38.1 artikulua 3. zenbakia aldatzen da.

“3. Foru lege honetako 9.1. artikulua c) eta d) letretan, 31.1. artikulua 2. eta 4. idatz-zatietan, eta 85. quinquies artikuluan aipatutako ondusun-emate eta zerbitzu-emateak.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa gorabehera, bere artikulua bakarraren Bat, Bi, Lau eta Sei zenbakiko atalek 2005eko urtarrilaren 1ean hartuko dute indarra. Hiru zenbakiko atalak 2006ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra eta Bost zenbakikoak, berriz, 2005eko azaroaren 20an.

